



2024-2025 IKASTURTEKO ANTOLAKUNTZA HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN



**Hezkuntzako
sailburuaren ebazpena**



AURKIBIDEA

SARRERA

1.- HEZKUNTZAREN ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA

- 1.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua
- 1.2.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua
- 1.3.- Ikastetxearen urteko plana
- 1.4.- Urteko memoria
- 1.5.- Jasangarritasun-irizpideak
- 1.6.- berdintasun-irizpideak
- 1.7.- Eraldaketa digitalerako irizpideak
- 1.8.- Elkarbizitzaren behatokia eta elkarbizitza-plana

2.- IKASKETEN ETA CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA

- 2.1.- Ikasketen antolamendua
- 2.2.- Curriculumaren antolamendua
- 2.3.- Etorkinetzako hezkuntza-tratamendua

3.- IKASLEEN ANTOLAMENDUA

- 3.1.- Prestakuntza-programen eskaintza
 - 3.1.1. Araituko formakuntza
 - 3.1.2. Ez araituko formakuntza
- 3.2.- Egutegia: araituko eta ez araituko prestakuntza-programa
- 3.3.- Matrikulazioa: araituko eta ez araituko prestakuntza-programa
 - 3.3.1. Matrikula. Eskabideak aurkezteko epeak
 - a) epearen barruan
 - b) epez kanpo
 - 3.3.2. Matrikulatzeko baldintzak
 - 3.3.3. Deialdiak
 - 3.3.4. Matrikula ofizioz bailogabetzea bertaratze-hutsegiteengatik
 - 3.3.5. Matrikulari baja ematea
 - 3.3.6. Matrikulari uko egitea
 - 3.3.7. Ikastetxez aldatzea

4.- EBALUAZIOA

- 4.1.- Hasierako ebaluazioa
- 4.2.- Etengabeko ebaluazioa
- 4.3.- Amaierako ebaluazioa
- 4.4.- Ikas-errendimenduari buruzko balorazio objektiboaren eskubidea
- 4.5.- Salbuespenak
- 4.6.- Dokumentazioa
- 4.7.- Egiatagiriak eta tituluak



5.- IRAKASLEAK

5.1.- Antolamendua

5.1.1.- Izendapena

5.1.2.- Urteko lanaldia

5.1.3.- Asteko lanaldia

a).- Arduraldi arrunta duten irakasleak

b).- Lanaldi murriztua duten irakasleak

c).- Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak

d).- Zuzendaritza-taldea

e).- Lanaldiaren herenaren murrizketa duten irakasleak

f).- Irakaskuntzaz kanpoko jardueren ardura

g).- Ikastetxearen ordutegia agerian jartzea

5.1.4.- Irakasleen bertaratzea

a).- Lanorduak betetzen direla kontrolatzea

b).- Bertaratze-agiriak

5.1.5.- Departamentuak

5.1.6.- Orientatzailearen funtzioak

5.1.7.- Tutoretzak

5.2.- Irakasleen prestakuntza

6.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA ADMINISTRAZIOA

6.1.- Beste gizatalde batzuekiko koordinazioa

6.2.- Ikastetxeetako eraikinen eta instalazioen erabilera urteko planean aurreikusita ez dauden ekintzetarako

6.3.- Ikastetxeetako osasunari eta segurtasunari buruzko araudia

6.3.1.- Osasun-larrialdiak ikastetxeetan

6.3.2.- Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua

6.3.3.- Obrak

6.3.4.- Tabakoa eta alkoholdun edariak

6.3.5.- Eskolako laborategien erabilera

6.4.- Lan-arriskuen prebentziorako zerbitzua

6.4.1.- Segurtasun-laguntzailea

6.4.2.- Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan

6.4.3.- Larrialdietako simulazioak

6.4.4.- Botika-kutxa eramangarria

6.4.5.- Lan-istripuak

6.4.6.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

6.5.- Ikastetxeko ikasleen eskola-asegurua izapidetzea eta ordaintzea

6.6.- Datu pertsonalak babestea

6.7.- Jabetza intelektuala ikastetxeetan



HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOAK 2024-2025 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

SARRERA

Azken ikasturtetan zehar hezkuntza-sistemak erakutsi duela erresilientzia-gaitasuna duela egoera aldakorretara egokitzeko, eta gertaera hori palanka bihurtu da hura garatzeko eta indartzeko. Halaber, berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako jarduerari berriro ekiteko heldu beharreko erronkei buruz pentsatzen jarraitu behar dugu.

Lehenik eta behin, identifikatutako erronkak lantzen jarraitu nahi dugu, eta ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari aholkularitza eta laguntza hobea eman.

Jakina, ebaluazio-tresnak lantzen eta ikaskuntza hobetzeko eta neurtzeko modu berriak bilatzen jarraitu behar da, hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan eragin ahal izateko aukera berriak integratuz, hezkuntza-prozesu horietan arreta handiagoa jarritz, ikaskuntzarako arrakasta-palankak eta hobetzeko aukerak identifikatuz, betiere ikasleak eta haien hezkuntza-premiak, sozialak eta emozionalak ardatz hartuta.

Premia guzti horiei erantzutea erronka handi bat da eta hezkuntza-jarduerak erantzun behar diote, edozein egoera apendizai eta garapen pertsonala bihurtzeko eta curriculum eta eskola-antolamendua kudeatzeko modu berriak diseinatzeko aukera bilakazeko; kokatutako berrikuntza-prozesuak aktibatuz eta, garrantzitsuena, ilusioz eta motibazioz lan egiten jarraitzeko, gizarteari gure zerbitzurik onena eskaintzeko.

2024-2025 ikasturteari begira, aurreko ikasturtean markatutako ildo estrategikoekin jarraituko dugu:

- Hezkuntza-lidergoia eta ikastetxeen ahalduntzea sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoan euskararen erabilera eta garapena sustatzeko estrategia berriak bultzatzea.
- Ikastetxearen plan digitala garatzea, ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzunez.
- Aktiboki lan egitea eskola inklusibo, askotariko eta ikasle guztien beharretara egokitutako baten alde.
- Eskola-jasangarritasunaren kultura sustatzea, hezkuntza-dimentsio guztietan zeharkako elementu gisa.
- Hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzeko, praktika, material eta azpiegitura berriak garatzea.



1. HEZKUNTZAREN ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA

Ebazpenaren lehenengo puntu honetan plangintzaren alderdiak azalduko dira eta helduen hezkuntzako ikastetxe guztiek 2024-2025 ikasturtean kontuan izan beharreko lehentasunak edo gutxieneko ezaugarriak ezarriko dira.

1.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ¹

Ikastetxeko heziketa-proiektua (IHP) ikastetxeak dituen ezaugarriak aztertu eta gero egindako proposamen integral, global eta loteslea da, eta ikastetxearen balioak, printzipioak, helburuak eta horiek lortzeko moduak zehazten ditu.

IHPren ataletan jasotzen diren alorrak (indarrean den araudiarekin bat etorriko dira, edozein kasutan) kontuan izan behar dira nahitaez ikastetxeak bere eskumen-eremuan hartu behar dituen erabaketan. Euskal Eskola Publikoaren Legearen 48.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragileak –irakasleak, ikasleak eta langile ez-irakasleak– behartuta daude proiektuaren ataletan adierazten dena errespetatzera eta, nolana ere, aukera izango dute horiek berrikustea eta eguneratzea proposatzeko, proiektuan bertan ezarritako mekanismoen baliatuta.

Ikastetxe guztiek bere IHPa egina edo eguneratua izan behar dute. Lan hori errazte aldera, Hezkuntza Sailak Ikastetxearen [Hezkuntza Proiektua prestatzeko gida](#) argitaratu du. Horrekin batera, EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean jasotzen diren lerro estrategiko hauek ere kontuan hartzea gomendatzen da:

- Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta
- Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan
- Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- Ebaluazioa eta ikerketa
- Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea
- Iraunkortasunaren kultura ikuspegi ekosozialarekin eta Agenda 2030.
- Teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa

1.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA ²(IHP)

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuak eskola-komunitatearen barneko hizkuntza-plangintzarekin zerikusia duten alderdi guztiak jasoko ditu, ikasle guztien komunikazio eta hizkuntza-gaitasuna garatze aldera. Honako araudi hau izango da kontuan horretarako: Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 17. artikulua, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea, Ikasleen eskubide eta betebeharreari buruzko 201/2008 Dekretua, eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculum zehazten duen 77/2023 Dekretuaren 8. eta 9. artikulua.

Helduen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dituzte 77/2023 Dekretuaren 8. eta 9. (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) artikuluetan ezarritako curriculum-planteamenduak; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena hizkuntza- eta komunikazio-helburuak bateratzea eta jakintza-arlo eta ikasgai

¹ Eusko Jaurlaritza (2014). Ikastetxeko heziketa-proiektua prestatzeko gida

² Eusko Jaurlaritza (2016). Ikastetxearen hizkuntza-proiektua egiteko gida



bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko. Horrek esan nahi du hizkuntzei buruzko erabakiak ez direla soilik hizkuntza-arloko irakasleen ardura. Hizkuntza komunikaziorako tresna eta oinarrizko eta zeharkako gaitasuna denez, ikastetxeko eremu edo ikasgai bakoitzean eta guztietan garatu behar da.

Horregatik, 2024-2025 ikasturterako hizkuntza-proiektuaren garapenaren inguruko lehenetsunak lana ikastetxeko erabakiak esparru didaktiko-metodologikoan hartzearekin eta praktikan jartzearekin lotuta egongo da, eta bereziki irakurtzeko gaitasunarekin eta ahozko adierazpenarekin zerikusia duten erabaki guztiak hartzearekin eta praktikan jartzearekin. .

Aurrekoaren ildotik, ikasgai eta arlo guztietako irakasleek hizkuntza-gaitasunari dagozkion funtsezko gaitasunak, berariazko gaitasunak, oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak sartuko dituzte euren urteko programazio didaktikoetan, testuen idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita.

Ikastetxe guztiak bere ikastetxearen hizkuntza-proiektua egina edo eguneratua izan behar dute. Lan hori errazte aldera, [Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua Prestatzeko Gida](#) argitaratu du Hezkuntza Sailak.

1.3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Ikastetxearen Urteko Plana koordinatzeko ardura Eskola-kontseiluari dagokio. Eskolako ordezkari-argano gorenak onartu behar du Plan hori, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean irakaskuntza-jardueren programaren gainean klaustroari esleitzen zaizkion eskumenen kalterik gabe.

Ikastetxeek ikasturte hasieran prestatuko dute 2024-2025 ikasturterako Eskola-kontseilua, ikastetxearen jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute **urriaren 31** baino lehen **Heziguneren** bitartez.

Ikastetxearen Urteko Plana laburra eta zehatza izango da, plan erabilgarri eta praktikoa izan dadin ikastetxearentzat berarentzat, eta Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidan jasotako gomendioei jarraituko die.

Material digitalen prestakuntzak eta erabilerak lehenetsuna izaten jarraitzen du, eta gai honen inguruko erabakiak Urteko Planean jasoko dira.

Planak alderdi hauek hartzen ditu barne:

- a) Irakaskuntza-jardueren programa
- b) Prestakuntza-plana
- c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoaren programa
- d) Urteko kudeaketa programa

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari dagokio programa hori egitea eta, hala badagokio, klaustroak eskuordetu dezakeen batzorde bati.



Irakaskuntza-jardueren programak zenbait erabaki eta irizpide biltzen ditu ikastetxea eta eskola-jarduera antolatzeko, barneko eta kanpoko ebaluazioak kontuan izanik. Horretarako, alderdi hauek izango dira kontuan:

- 2024-2025 ikasturterako helburuak definituko dira, barne-ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren eta egindako hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta.
- IHPTik, bizikidetzeta-planetik (ikastetxeak berdintasun-alorrean eta genero-indarkeriaren prebentzioan aurrera egiteko garatuko dituen jarduerak barne), hizkuntza-proiektutik (irakurketa-plana lehenetsiz), aniztasunerako arreta-planetik eta zuzendaritza-proiektutik (halakorik balego) eratorritako helburu eta ekintzak.

Atal honetan alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleei zereginak esleitzeko eta irakaskuntza-lanaldia zein ikastetxean egon beharreko aldia zehazteko irizpideak, tutoretzen banaketa, hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleekin esku-hartzea eta horiei jarraipena egitea Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren arabeko hezkuntza-laguntza eta -errefortzua antolatzeko. Hori guztia, egokitasunaren eta egokitzapen hobereana lehenetsita, administrazio-irizpide soilaren aldean (antzinatasuna irakasletzan zein ikastetxean eta abar).
- Ikasleak elkartzeko irizpideak, erabilera komunekeo guneen banaketa, baliabide didaktikoen antolaketa, azterketen datak eta abar.

Ez da beharrezkoa izango IUPEan errepikatzea eskolako jardueren agirian (EJA) jasotako datuak.

b) Prestakuntza-plana

Eskola kontseiluaren zati hau prestatzea zuzendaritza-taldeari edo pedagogia-batzordeari dagokio, eta ordezkari-taldea gorenak onartu behar du.

Plan horrek barneko ebaluazioen emaitzak eta proposatutako hobekuntza-helburuak aztertu ondoren hautemandako beharrei erantzun die.

Ikasturte honetan, ikastetxeentzako oinarritzako prestakuntzak ikastetxean, berritzegunean eta berdinen artean prestatzeko formulak hartuko ditu kontuan, eremu guztiak jorratzeko eta ikaskuntza-prozesua bermatzeko.

Digitalizazioari dagokionez, HHIko ikastetxeek erronka hauek izango dituzte 2024-2025 ikasturteari begira:

- 2022-23 ikasturtean hasitako bidea jarraituta, Berritzeguneko aholkularitzapean, HHEko ikastetxe guztiek inplementatu beharko dute proiektu digitala ikastetxean. Ikastetxearen proiektu digitalak bat etorri beharko du IHPrekin eta ICPrekin, eta proiektuan jasota dauden 2024-2025 ikasturterako helburuak IUPan jasota egongo dira.
- IPD inplementatzeko Digitalizazio Batzorde bat eratuko da, proiektuaren garapena dinamizatu eta koordinatuko duena.
- Era berean, matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniariarako kompetentzien moduluekin lotuta, *steam* eremuarekin lotura duten ekintzak sustatuko



dira, hau da, ikasketa-egoeren bidez zientzia, teknologia, ingeniari-tza, arte eta matematiketako esparruak elkarrekin harremanetan jartzen dituzten ekimenak.

- Bestalde, beharrezkotzat jotzen da larrialdi klimatikoaren testuinguruari eta XXI. mendeko erronkei erantzuteko hezkuntza-estrategiak diseinatzea.
- IUPn aurreikusitako prestakuntza-jardueretan, irakasleen parte-hartzea derrigorrezkoa izango da, eta hori jaso beharko da.

Gomendagarria da ikasturtearen hasieran, zuzendaritzak planifikatzea irakasle guztiak aldi berean ikastetxean egongo direneko aldiak, guztiak aldi berean egotea eskatzen duten prestakuntza-lanetarako.

Prestakuntza-plana hezkuntza-komunitateko kide guztientzat egongo da zabalik, eta irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko jardunean eragina izatea izango du xedetzat, ikasleek irteerako profila lor dezaten eta barneko zein kanpoko ebaluazioen emaitzak hobetu daitezten.

c) Jarduera osagarrien edo soziokulturalen programa

Ikastetxe batek, jarduera osagarriak edo soziokulturalak planifikatzean, ikasle guztiak izan behar ditu kontuan, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Ikasle guztiek dute horietan parte hartzeko eskubidea, beraz hori aurreikusi beharko da, eta, ikastetxeak dituen baliabideak (irakaskuntzako eta hezkuntzako profesional guztiak) aintzat hartuta, egokienak zein diren hautatu beharko da, inor kanpoan ez uzteko.

Zuzendariak, edo zereginetan ordezkatzen duenak, eskola-orduetan ikasleek egiten dituzten irteeren eta ikastetxean bertan edo handik kanpo egiten dituzten jarduera soziokulturalen erregistro bat eramango du; erregistroa etengabe eguneratuko da eta honako elementu hauek jasoko ditu: helburuak, parte hartzen duten ikasleak eta irakasleak eta egingo den data eta tokia. Erregistro hori Eskola-kontseiluaren eta Ikuskaritzaren eskura egongo da eskolan.

Jarduera osagarriak eta soziokulturalak Urteko Planean jasota egon behar dira eta, hala ez denean, ordezkaritza-organo gorenak aurrez onartu beharko ditu eta Plan horretan jaso.

Jarduera horiek lotesleak dira ikasleentzat zein irakasleentzat, eta eskolako ordutegian txertatzen dira osorik edo zati batean. Joan-etorri guztiak jasangarritasun-irizpideak aintzat hartuta antolatuko dira.

Horien artean, hauek hartu behar dira kontuan:

- Ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten diren kultura-jarduerak, prestakuntzakoak, etab.
- Ikastetxearen jai-jarduerak
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Ikastetxetik kanpoko jarduerak: bisitaldiak, landa-lanak, irteerak, etab.

Jarduera horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira, eta baita ikasleek nola parte hartuko duten ere. Jarduera horien alderdi edo ondorio ekonomikoak urteko kudeaketa-programan jaso beharko dira.



d) Urteko Kudeaketa Programa

Ikastetxeko kudeaketa-proiektua, hain zuzen ere, urteko kudeaketa-programan hezurmamitzen da, aurrekontua egin eta onartzea izanik adierazlerik garbiena, zeina uztailearen 28ko 196/1998 Dekretuan (1998-09-14ko eta 1998-09-23ko EHA) ezarritakoari jarraituz egin beharko baita.

Zuzendaritza-taldeak edo batzorde iraunkorrak landu behar du Eskola-kontseiluaren zati hau, eta ordezkaritza-organo gorenak onartu.

Programa honetan jasoko dira gastua dakarten jarduerak, besteak beste, jantokia, garraioa eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-iturriak, gastu-aurreikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar. Egiterakoan, erosketa berdeko eta kontsumo jasangarriko irizpideak zein berdintasuna sustatzekoak sartzeari gomendatzen da.

2024-2025 ikasturteko ikastetxearen Urteko Kudeaketa Programa Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jarriko da, **Heziguneren** bidez. **Urriaren 31** baino lehenago egin beharko da.

1.4.- URTEKO MEMORIA

Zuzendaritza-taldearen ardura da ikastetxearen memoria idazteko lana koordinatzea. Bertan bilduko dira sail bakoitzeko memorietatik ateratako ondorioak. Ikastetxearen urteko planaren analisia eta betetze-maila eta lortutako eskola-emaizak abiapuntu hartuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du: ondorioak aterako ditu, hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu eta lehentasunak ezarriko ditu, ikastetxearen hurrengo urteko planean lortu beharreko helburuak finkatzeko. Memoriak ikastetxearen ikuspegi global eta bateratua eskaini beharko du.

Eskola Kontseiluak onartu beharko du memoria. Ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura jarriko dute **irailaren 30a** baino lehen, Sailaren webguneko **Hezigune** plataforma baliatuta.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, eta Hezkuntza Sailaren web-orrian aurki daitekeen gidako gomendioei jarraituko die.

1.5.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) barne biltzen dituen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda berriarekin bat etorritik, eta 2030erako Euskadiko Jasangarritasunareko hezkuntzako Estrategia garatzen jarraitzeko, ikastetxeek modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatu behar dituzte.

Alde horretatik, ikastetxeek jasangarritasunerako beren konpromisoak zehaztu behar dituzte, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren curriculum-zehaztapenari dagokionez, bai kudeaketa eta partaidetza komunitarioko praktikei dagokienez. Horrek esan nahi du, era berean, jasangarritasunaren aldeko helburuak eta jarduerak hezkuntza-antolamenduko dokumentuetan sartu behar direla ((IHP, ICP, AJA, IUP) Iraunkortasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzeak dakar, batez ere, arazo ekologiko eta sozialen aurrean ikasleengan beharrezkoak diren konpetentziak eta konpromisoaren garapena. Funtsezkoa da ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea egungo eta etorkizuneko erronkei helduko dieten tokiko zein mundu mailako ekintza eraldatzaileak identifikatu eta garatzeko orduan. Hori lortzeko, diziplinartekotasunaren eta curriculumaren alderdi desberdinen arteko lotura



bultzatuko da, krisi ekologikoarekin, justizia sozialarekin, ekitatearekin eta herritartasun globalarekin lotutako edukiak integratuz.

Horretarako, funtsezkoa da ikastetxeetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko gobernantza sustatzea, hezkuntza-komunitateak aktiboki parte har dezan erabakiak hartzeko garaian eta jasangarritasunerako ekintzak ezartzerakoan. Horretarako, elkarrizketarako eta parte hartzeko espazioak ezarri behar dira, irakasleen, ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen arteko lankidetzaren sustatzea, eta jasangarritasunaren aldeko erantzukizun partekatuko kultura bultzatuz. Testuinguru horretan, hezkuntza-ingurune jasangarriagoa eraikitzen lagunduko duten ekintza praktikoko ugari egin daitezke:

- Eskolako Agenda 2030a ezartzea: jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan, arazo ekologiko eta sozialetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz, tokiko eta munduko eremuan, eta ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai kolektiboak, orain eta etorkizunean.
- Larrialdi klimatikoari aurre egitea. Horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak egin daitezke (bizikleta edo garraio publikoa erabiltzea, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko neurriak ezartzea, eta abar.), ondasun komunen kudeaketa hobetzea (energia kontsumoa murriztea, hezkuntza-komunitatearen artean energia arduraz erabiltzea, energia berriztagarriko sistemak...), ura, materialak (kontsumoa murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea...), eta abar.
- Komunitatearen ikaskuntza eta zerbitzua sustatzea: ikasleen parte-hartzea sustatzea komunitatearen benetako beharrak asetzen dituzten proiektuetan, hala nola, boluntariotzako ekintzak eta jasangarritasunarekin zerikusia duten komunitatearentzako zerbitzu-proiektuak.
- Tokiko komunitatearekin lankidetzan (Tokiko Agenda 2030), sareko lanean (IRAES, ESenRED, Eskoletako Urmaelen Sarea...) naturguneak eta eskola-patioak curriculumaren zati integral gisa erabiliz, naturarekiko lotura sustatuz eta abar curriculumaren zati gisa erabiliz, curriculum berritzea.
- Eskolako Protokolo Ekosoziala egitea. Dokumentu bat egitea, arlo ekosozialean jarduteko jarraibideak eta irizpideak jasoko dituen, eskola-komunitateak diseinatua, garatua eta gauzatua, ikasleak protagonista direla. Protokolo bat, honako irizpide hauek zehaztuko dituen: ikasleen eta familien harrera, irakasle berriak jasotzea; berdintasuna; bizikidetzaren eta gatazken kudeaketa; migratzaileen hizkuntza-finkapena; kontsumoa eta mantentze-lanak; hondakinen kudeaketa eta garbiketa; energiaren kudeaketa; uraren kudeaketa; osasun-protokoloa; patioen naturalizazioa; jolas-guneen kudeaketa; eskola-baratze ekologikoa; eskola-jangela osasungarria eta iraunkorra; mugikortasunaren kudeaketa; teknologien erabilera eta kudeaketa; zarataren kudeaketa; ingurunearekiko konpromiso ekosoziala... Jardueren erdigunean bizitza jartzen duten elementuak, guztiak eta elkarreraginean daudenak.

Hezkuntza Sailak, ikastetxeek iraunkortasunerako estrategia gauza dezaten, prestakuntza eskainiko du ingurumen-hezkuntzaren esparruan, ikuspegi ekosozialarekin eta Munduko Herritartasunarekin.



1.6.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako) Legearekin) bat etorri, ikastetxeek bultzatu duten hezkuntza-eredua pertsonen garapen integrarean oinarritu behar da, estereotipoak eta rolak alde batera utzita.

Ildo horretan, ikastetxeek beren berdintasun-konpromisoak zehaaskolatu behar dituzte beren hezkuntza-politikan, -kulturan eta -jardunbideetan. Horrenbestez, ikastetxeek berdintasuna sustatzera eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako helburu eta jarduera horiek hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, Bizikidetzaren Plana, AJA, IUP...) jaso behar dituzte.

Ikastetxeek hezkidetzara eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako proiektuak garatuko dituzte, eta irakasgai guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean txertatuko dituzte aipatutako Legean eta II. Hezkidetzaren Planean («[EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, 2020-2023](#)») jasotako hezkidetzaren helburuak.

Jakina denez, Emakunde aipatutako planean laguntzen du gazteen artean indarkeria sexista prebenitzera bideratutako Beldur barik programaren bidez.²

1.7.- ERALDAKETA DIGITALERAKO IRIZPIDEAK

Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharizan eta aukera berriak sortzen dituzte. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, Hezkuntza Sailak 2022-2024 aldirako [Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana](#) onartu du. Digitalizazio Plan honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da.

Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

Lan-ildo horri jarraituz, 2023-2024 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailak trebakuntza digitaleko gelak sortu zituen helduen hezkuntzako ikastetxeetan. 2024-2025 ikasturtean jarraitu egingo da proiektuarekin, prestakuntza-eskaintza hori herritar guztiei gerturatzeko.

Eskaintza horri esker, herritarrak beren prestakuntza eta trebakuntza osatuko duten zeharkako kompetentzia digitaletan trebatu ahal izango dira, lana bilatzeko aukerak zabalduko dituen tresna bat emango zaielarik.

Irakasleen trebakuntzari dagokionez, 2022an argitaratu zen Irakasleen Kompetentzia Digitalaren Markoa, lanean dauden irakasleen % 80aren kompetentzia egiaztatzeko esparru horri dagokionez.

23-24 ikasturtean, EAEko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxeetako irakasleen % 80k baino gehiagok gutxienez A2 bat egiaztatu du kompetentzia horretan. Bide horretan aurrera egiten jarraitzeko, Hezkuntza Sailak, Berritzegune Nagusiko digitalizazio-arloarekin batera,

² <http://beldurbarik.org/eu/>



Irakasleen Konpetentzia Digitaleko B1 eta B2 mailak egiaztatzen dituzten ikastaroak egiteko aukera eskainiko die ikastetxe horiei.

Aurreikusten da akreditazioa aintzat hartuko dela Hezkuntza Sailaren hurrengo deialdi ezberdinetan, ikastetxeen nahiz irakasleen eskabideak baloratzeko orduan. Bide hau jorratzeko ikastetxeek Hezkuntza Sailak eskainitako ikastaroak izango ditu eskura. Ikastaro hauek autoformazio ikastaroak izango dira.

1.8.- ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA ETA ELKARBIZITZA-PLANA

Elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da. Bizikidetzaren positiboa sustatzeko, eta hori hezkuntza-komunitate osoan sar dadin, ikastetxeei biziki gomendatzen zaie bertako sektore guztiek osatutako Elkarbizitzaren Behatokia egin dezaten eta urteko Elkarbizitza Plana prestatu dezaten.

2.- IKASKETEN ETA CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA

Gainerako ikastetxeetan bezala, Helduen Hezkuntzako ikastetxeko heziketa-proiektuak bertan emandako irakaskuntzak hartuko ditu barne. Hauek izango dira oinarrizko erreferenteak: batetik, maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuaren–Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) arabera, helduak Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko gaitzen dituzten helburu nagusiak; bestetik, ikastetxearen urteko planean jasota dauden arautu gabeko prestakuntza-programak.

2.1.- IKASKETEN ANTOLAMENDUA

Helduentzako oinarrizko prestakuntza moduluka antolatuko da, hurrenez hurren honako hauei dagozkien hiru gradutan:

Hasierako Irakaskuntzak I; gradu honetan, helduak gai izan behar dira matematikako eta hizkuntza-komunikazioko oinarrizko edukiak eta ahozko eta idatzizko ulermena, adierazmena eta elkarreragiteko gaitasuna eskuratzeko, nagusiki, oinarrizko gaitasunez errazago jabetzeko.

Hasierako Irakaskuntzak II; gradu honetan, helduen alderdi guztiak garatzeko aukera emango duten ezagutza eta gaitasun orokorrak finkatzen dituzte.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; 1. mailan (1. eta 2. moduluak) eta 2. mailan (3. eta 4. moduluak) antolatzen da. Helduen prestakuntza osatzea, zabaltzea eta sakontzea du helburu, amaitzen dutenean behar adina gaitasun izan ditzaten esku hartuko duten esparru guztietan partaidetza handiagoa izateko; gradu hau gaindituta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen da.

Aurkeztutako ikastetxe-proiektuaren arabera arautu gabeko prestakuntza-programei dagokienez, ikasleen eskaerei erantzun zaie. Horretarako, 3.2 apartatuan ikasle taldeak eta hezkuntza-eskaintza osatzearekin lotuta zehazten diren irizpideei jarraituko zaie.



2.2.- CURRÍCULUMAREN ANTOLAMENDUA

Curriculuma modulu didaktikoetan dago antolatuta. Curriculumaren antolamenduaren ikuspegitik, modulu didaktikoa da curriculumaren antolamenduko eta ebaluazioko denbora-unitatea; ardatz bereko eta modu koherente eta jarraituan bildutako ikaskuntza multzo batek osatzen du.

Ikastetxeek eremu bakoitzeko curriculuma 12 modulutan banatuko dute.

Ikastetxea hobeto antolatzeko, modulu guztiek lau hileko iraupena izango dute (irailetik urtarrilera edo otsailetik ekainera), eta arlo hauek sartuko dira II. eta III. graduetan: komunikazioa, gizartea eta zientifiko-teknologikoa.

Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du era horretan banatzen dela curriculuma ikastetxe guztietan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diplomadun-tituluak behar bezala ematen diren ikuskatzeko.

Moduluak eta curriculuma banatzeko ordutegiari dagokionez, hauxe da helduei eskaini ahal zaien gradu bakoitzaren iraupena, orduetan emanda:

Hasierako Irakaskuntzak I:	4 lauhileko, 64 aste, 12 ordu/asteko = 768 ordu
Hasierako Irakaskuntzak II:	4 lauhileko, 64 aste, 12 ordu/asteko = 768 ordu
DBH:	4 lauhileko, 64 aste, 15 ordu/asteko = 960 ordu

2.3.- MIGRATZAILEENTZAKO HEZKUNTZA-TRATAMENDUA

Helduen Hezkuntzako ikastetxeak oinarrizko prestakuntza urria duten migratzaileentzat erreferente izango dira; pertsona horiek ikastetxe horietan alfabetatzen ari direnek jasotzen duten tratamenduaren parekoa jasoko dute.

Ikastetxe bakoitzak migratzaileei emango dien gizarte- eta hezkuntza-arloko erantzuna pertsona horien kopuruaren eta ezaugarrien arabera izango da. Aurretik ezarrita dauden multzoetan txertatu ahal izango dituzte etorkinak, edo arautu gabeko irakaskuntzako talde espezifiko bat sortu ahal izango dute.

Beren jatorrizko herrialdean oinarrizko prestakuntza urria jaso duten eta hizkuntza gutxi ezagutzen duten migratzaileen kasuan, irakaskuntza arautuan alfabetatzen hasterakoan, lehenetsuna emango zaio hizkuntza ikasteari.

Bestalde, beren jatorrizko herrialdean oinarrizko prestakuntza jaso duten eta hizkuntza-maila egokia duten migratzaileak dagozkien moduluetan sartuko dira. Helduen Hezkuntzako ikastetxeak egiaztatuko du, hasierako ebaluazioaren bidez, ea benetan oinarrizko prestakuntza hori egin duten. Modu horretan, Helduen Hezkuntzako ikastetxean prestakuntza-ibilbidea izateko aukera emango zaie, hala badagokio, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua eskuratzen duten arte.



3.- IKASLEEN ANTOLAMENDUA

3.1. PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

3.1.1. PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ARAUTUEN ESKAINTZA

Helduen hezkuntzako zentro presentzialen prestakuntza-eskaintza honela egituratzen da:

- OINARRIZKO HEZKUNTZA: • Hasierako Irakaskuntzak I eta II, 1,2, 3 eta 4 moduluak, helduaren dimentsio guztietako garapena ahalbidetuko duten ezagutza eta gaitasun orokorrak sendotzea helburu dutenak.
- HELDUEN BIGARREN HEZKUNTZA: 1. maila (1,2 moduluak) eta 2. maila (3,4 moduluak). Etapa hau helduen prestakuntza osatzera, zabaltzera eta sakontzera bideratuta dago, pertsona helduek parte hartzen duten eremu guztietan parte-hartze handiagoa izan dezaten.

Gradu hori gaindituta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzen da.

Ordu- banaketa

Hasierako Irakaskuntzak I. graduan, helduen ereduako ordutegia asteko 12 ordukoa izango da talde bakoitzeko, eta arlo guztiei buruzko edukiak modu orokorrean irakatsiko dira. Hori dela eta, ordutegi bera izango da modulu guztietan.

Hasierako Irakaskuntzak II. graduan, asteko 12 ordu eman beharko dira talde bakoitzeko, baina oraingoan ordutegia ez da bera izango bi arloetan (komunikazioa, gizartea eta esparru zientifiko-teknologikoa).

Bigarren Hezkuntzan, astean 15 ordu izango dira eta, oraingoan ere, hiru arloak bereiziko dira.

Era berean, ikasle helduen berezitasuna eta lan-ordutegia kontuan hartuta, hemen adierazitako ereduako ordutegia malgutu ahal izango da eta, beraz, denbora mugatua izanez gero, arlo guztiak eta gradu batean dagozkien modulu guztiak ikasi ordez, batzuk ikasi eta gainerakoak hurrengo lauhilekorako utzi ahal izango dira.

Ondorengo lauki honetan jasotzen da orduen antolamendu hori:

	Hasierako Irakaskuntza k I	Hasierako Irakaskuntza k II	DBH
ARLOAK	ORDUAK	Ordutegi-eredua	Ordutegi-eredua
Komunikazioa		4	5
Gizartea		2	3
Zientifiko-teknologikoa		4	4
Nahierara banatzeko orduak		2	3
GUZTIRA	12	12	15



Irakastorduak goizez, arratsaldez eta gauez izan daitezke eta, betiere, helduen beharretara egokitu beharko dira. Ahal dela, irakastorduak ondo bateratzeko aukera eskainiko da ikastetxeetan; izan ere, zenbait ikaslek, lan-arazoak direla eta, agian ezin izango dute jarrai-jarraian txanda berean bertaratu.

Irakastordu bakoitzaren iraupena zehazteko, ikasleen egoera eta premiak, ikasketa-mailak, irakaskuntza-ikaskuntzaren ezaugarriak eta ikastetxearen antolamendua kontuan hartu beharrekoak badira ere, arau hauek bete behar dira, ikastetxeko moduluen banaketa eta ordutegiaren antolaketa errazago egitearren:

Ikasleen asteko ordutegia, ahal bada, astelehenetik ostiralera izango da (biak barne), eta ikasle talde berak gutxienez 2 orduko eskolak izango ditu egunean. Hala ere, ostiraleko ordutegia astean zehar banatu ahal izango da, astelehenetik ostegunera bitartean, baldin eta horrela ikasleei erantzun hobea ematen bazaie, ostiraletan koordinazio-jarduerak gauzatzen badira (klastroa, irakasle-bilerak, etab.) eta OOGren onarpena jasotzen badu. Egoera bereziengatik edo taldearen ezaugarriengatik ordutegia aldatu beharko balitz, Lurralde Ordezkaritzak horretarako baimena eman beharko du, Hezkuntza Ikuskaritzak horri buruzko txostena egin ondoren.

Eskola-aldien iraupenari dagokionez:

- Ez da egongo ordubetetik beherako iraupeneko eskolarik.
- Eskolek ordubeteko, ordu eta erdiko eta bi orduko iraupena izan dezakete.
- Bi ordutik gorako eskolak onartzekotan ere, teknologia, lantegi edo antzekoak egiteko izango da, baina gehienez ere 3 orduko iraupena izango dute.
- Ikasle-talde bakoitzarentzat prestatu den ordutegi-taula EEDn bete beharko da.

Bertaratzeak kontrolatzea

Aurrez aurreko modalitatean, ikasle ofizialen eskubidea eta betebeharra da eskoletara joatea, hala eguneko ikasketetan nola arratsaldekoetan eta gauekoetan. Inola ere ezin da esan bertaratzea borondatezkoa denik, ikasleak matrikulatuta dauden arloetan.

- Ikastetxeek ikasleen hutsegiteak erregistratu beharko dituzte «Notak eta hutsegiteak» aplikazioan, hilabete bakoitzeko 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzak eskuragarri izan ditzan. Aplikazio horretan, gidaliburu bat dago, hutsegiteak nola erregistratu behar diren azaltzen duena. Azpimarratu egiten da nahitaez erregistratu behar direla bertaratze-faltak aipatutako aplikazioan, eta zentroak hura erabiltzeko zailtasunak baditu, horri buruzko prestakuntza-saioren bat egiteko aukera aztertuko da.
- Egunen batean ikasle gutxi badago, dena delakoagatik, irakasleek berdin-berdin eman beharko dituzte eskolak.
- Bertaratze-hutsegiteak dagokion tutoreari justifikatu behar zaizkio, eta Ikasketa Burutzak onartu behar du justifikazioa. Ikasleek beren frogagiriak aurkeztea erabakitzen badute, edozein lan-harremanetan eska daitezkeen frogagiri berak aurkeztu beharko dituzte.
- Ikasleei ezin bazaizkie aplikatu ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluazioaren metodoak eta irizpideak bertaratze-hutsegiteen kopuru handia izateagatik, dagozkien amaierako probetara aurkeztuta ebaluatu beharko dira. Ikastetxeek, eraginpeko arlo



bakoitzaren izaeraren arabera, froga horien izaera ezarriko dute, indarrean dagoen araudian adierazitakoaren arabera.

- Bertaratze-hutsegiteak asko izanez gero, matrikula ezeztatu ahal izango da, ebazpen honen 3.3.4 apartatuan ezarritakoaren arabera.

3.1.2.- ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMEN ESKAINTZA

Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan eman ahalko diren arautu gabeko prestakuntza-programen helburua helduen kualifikazioa hobetzea eta haiek autoikaskuntzarako eta bizitza soziokulturalean eta lan-munduan parte hartzeko duten gaitasuna garatzea izango da.

Ildo horretan, indar berezia jarriko da ikasleei lana bilatzeko orientabidea eta laguntza emango dieten eta askotariko irakaskuntza-mailetara edo enplegurako lanbide-heziketara sartzeko prestatuko dituzten irakaskuntza eta jardueretan.

Ikasle ofizialen eskubidea eta betebeharra da eskoletara joatea, hala eguneko ikasketetan nola arratsaldekoetan eta gauekoetan, irakaskuntza arautua zein ez-arautua izan. Inola ere ezin da borondatezko bertaratzea ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen jakintzagaietan, beraz, arautu gabeko prestakuntza-programetako **bertaratze-kontrola irakaskuntza arautukoaren modu berean egingo da.**

Prestakuntza-programa bakoitza egiteko eta gainditzeko, **gehienez ere bi ikasturte** izango dituzte ikasleek. Ezin izango da errepikatu gainditutako programa bat.

Ikastetxearen urteko planak programa horien zerrenda eta edukiak zehaztuko ditu. Programa horiek erantzuna eman beharko diete ikastetxearen testuinguruak dituen premiei eta eskariari. Ikastetxeak irakaskuntza ez-arautuetarako gehienez eskaini dezakeen ordu kopurua lanpostuen zerrendak egiteko irizpideei buruzko Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren urteko Ebazpenean ezarriko da.

Ikastetxeek irakaskuntza hauek eman ditzakete, gutxienez 15 ikasle dituzten taldeak osatzen badituzte:

1. Goi-mailako Heziketa Zikloetara sartzeko proben prestakuntza.
2. Unibertsitatean sartzeko 25 eta 45 urtetik gorakoentzako proben prestakuntza.
3. Erdi-mailako Heziketa Zikloetara sartzeko proben prestakuntza.
4. Gaztelania eta/edo euskara.
5. Iritsi berri diren ikasleentzako eta beraien familientzako harrera-programak.
6. Nazionalitatea lortzeko proben prestakuntza.
7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera oinarritzko mailan errazten duten programak (Gaikuntza Digitalerako Proiektua barne).
8. Atzerriko hizkuntzak (A1 maila).

Beste irakaskuntza batzuetan (1., 2. eta 3. puntuak) sartzeko prestakuntza-programak ematen dituzten ikastetxeek guztien zatiko irakasgai guztiak eskaini beharko dituzte. Era berean, zati bereziko aukeraren bat eskainiz gero, aukera horretarako beharrezkoak diren bi irakasgai sartuko ditu gutxienez. Irakasgai bakoitzari astean 3 ordu esleituko zaizkio.



Honez gain, ikastetxeek Heziketa Zikloetara eta Unibertsitatera sartzeko probak prestatzeko taldeetan matrikulatutakoen datu estatistikoak bidali beharko dituzte Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara ekainaren 30a baino lehen. Bidali beharreko datuak ondorengoak izango dira: probetara aurkeztutako ikasle kopurua eta horietatik gainditu duten ikasle kopurua.

2. puntuari jasotako programetan (25 eta 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko probak prestatzeko taldeak), unibertsitatera sartzeko ikasketarik ez duten 24 urtetik gorako pertsonak bakarrik matrikulatu ahal izango dira. Aipatu behar da probaren egitura desberdina dela 25 urtetik gorakoentzat eta 45 urtetik gorakoentzat. Beraz, 25 urtetik gorakoentzako sarbide-probaren zati espezifikoak ikasgaietan 45 urtetik beherakoak bakarrik matrikulatu ahal izango dira; izan ere, 45 urtetik gorakoentzako bigarren fasea elkarrizketa pertsonala da.

Gaztelania edo euskarako taldeei (4. puntuari) astean 4 eta 8 ordu bitartean esleituko zaizkie.

Iritsi berri diren ikasleentzako eta beraien familientzako harrera-programen barruan (5. puntuari), bi programa-mota bereizten dira:

- A) Ikasteko arazoak dituzten ikasle iritsi berrientzako prestakuntza
- B) Iritsi berri diren ikasleen familientzako prestakuntza

Asteko dedikazioa 6 ordukoa izango da.

Nazionalitatea lortzeko prestakuntza-taldeei (6. puntuari) astean 4-8 ordu esleituko zaizkie. Herritartasuna lortzeko probak, era berean, bi proba ditu: espainierako DELE diploma, A2 mailakoa edo goragokoa, eta CCSE proba (Espainiako ezagutza konstituzionalak eta soziokulturalak). Ikastetxeek erabakiko dute bi proben prestaketa emango duten edo horietako bat bakarrik. Ikastetxeren batek CCSE probaren prestaketa soilik eskaintzea erabakitzen badu, astean gehienez 3 ordu esleituko zaizkio.

Hezkuntza ez-arautuko gainerako taldeek, hots, 7. eta 8. puntuari jasotakoek, astean 3 irakastordu jasoko dituzte taldeko. Bi puntu hauetan jasotako irakaskuntzen helburu bakarra ikasleen lan-mundurako sarbidea erraztea izango da, eta ikastetxearen azpiegitura-aukeren eta eskuragarri dauden irakasleen arabera eskainiko dira. Ezin da aldi berean matrikulatu programa bereko maila desberdinetan, ezta ikastetxe desberdinetan ere, programa bera egiteko.

Ikastetxeek ikasturte horretan emango dituzten eta aurrez baimendu diren arautu gabeko prestakuntza-programen zerrenda bidaliko diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, ikasturte bakoitzeko **urriaren 31 baino lehen**; zerrenda horretan, matrikulatu diren ikasleen kopurua eta prestakuntza emango duten irakasleen izenak agertuko dira, baita bakoitzari dagokion espezialitatea ere. Zuzendaritza horrek ematen diren programen baldintzak ikuskatuko ditu.

Era berean, ikastetxeek Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara bidaliko dute hurrengo ikasturtean eman nahi dituzten prestakuntza-programen zerrenda, ikasturte bakoitzeko **maitzaren 15a baino lehen**. Programa berriak emateko baimena eskatu beharko da, horretarako prestatutako eredia betez.



3.2.- PRESTAKUNTZA ARAUTURAKO ETA EZ-ARAUTURAKO EGUTEGIA

Eskolen egutegiaren oinarriko arauak aipatzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduarekin, arestian aipatutakoa aldatzen duen 2013ko uztailaren 3ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduarekin eta Hezkuntza sailburuordearen 2017ko martxoaren 7ko Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetarako Ebazpenean zehaztutako arauarekin bat etorriz, honelakoa izango da 2024-2025 ikasturterako eskola-egutegia:

Guztira, 175 eskola-egun izango dira; kopuru horren barruan sartuko dira Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako jarduera bereziak, hala nola, matrikulazioa egiten denetik lauhileko bakoitza hasten den bitartean egiten diren bana-banako elkarrizketak eta sarrera probak. Lehenengo lauhilekoko ikasleen eskolak **irailaren 16an** hasi eta **urtarrilaren 24an** bukatu beharko dira; eta bigarren lauhilekoak **otsailaren 3an** hasi eta, beranduen jota ere, **ekainaren 20an** amaituko dira.

Nolanahi ere, hezkuntza-maila bakoitzaren azken ikasturtea finkatzeko, kontuan hartu beharko dira ondorengo irakaskuntzetara sartzeko prozeduretarako ezarri diren datak, ikasleek prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko. Urtarrilaren 29tik otsailaren 29ra bitarteko astean, banan-banako elkarrizketak eta sarrera-probak egingo zaizkie taldeetara bigarren lauhilekoan sartzen direnei eta irakasleen prestakuntzakoei. Ekaineko azken egunak, aipatutako ebazpenean jasotzen den moduan, ez dira irakasteko izango eta Ikastetxearen Plana ebaluatzeko erabiliko dira; halaber, aste horretan Ikasturtearen Memoria egin beharko da, bai eta eskatzen diren administrazio-agiri guztiak bete ere.

3.3.- MATRIKULAZIOA PRESTAKUNTZA ARAUTUAN ETA EZ ARAUTUAN

3.3.1.- Matrikula. Eskabideak aurkezteko epeak

Bi matrikulaaldi ezartzen dira 2024-2025 ikasturterako eta ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntza guztietarako:

Lehenengo matrikulazio-aldiak bi fase ditu: **ekainaren 17tik 27ra eta irailaren 2tik 13ra**.

Lehenengo fasean honako hauek matrikulatu ahal izango dira:

- HHI batean matrikulatuta dauden ikasleak, plaza erreserbatuta dutenak eta 2024-2025 ikasturtean irakaskuntza-programa berean jarraituko dutenak.

Plaza erreserbatzeko, hurrengo ikasturterako **matrikula-eskaera sinatu** beharko dute. Matrikula-eskaera sinatzean, jakinarazi egin beharko da hurrengo ikasturtera joan ezean, irailean eskolak hasi baino lehen jakinarazi beharko dela, matrikulari baja emateko. Horrela egin ezean, zenbatu egingo dira bertaratze-hutsegiteak, eta matrikula ezeztatuko da eta deialdiak zenbatuko dira, ebazpen honen 3.3.4 atalean ezarritakoaren arabera.

- Ikasle berriak: ikastetxean ematen diren irakaskuntzetara sartu nahi duten pertsonak eskatu ahal izango dute plaza. Onarpen-eskabidea aurkeztuko dute, egindako ikasketa arautuen egiaztagiriek batera.



Bigarren matrikulazio-aldian, urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra, ezin izango da HHIn matrikulatu ikasturte berean Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko irakaskuntza ofizialetan matrikulatuta dagoen ikaslerik.

Matrikulan, adierazitako epeetan matrikulatutako ikasleek izango dute lehentasuna. Talde kopurua ikastetxearen gaitasunaren eta irakasleen plantillaren arabera izango da.

Epe horietatik kanpo gertatzen diren **kasu bereziek** Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren berriazko baimena beharko dute.

a.-Matrikulazio-epearen barruan

Helduen hezkuntzan sartu ahal izango dira:

- Ikasturtea hasten den urtean hemezortzi urte betetzen dituztenak.
- Gainera, salbuespen gisa, ikasketa horiek egin ahal izango dituzte hamasei urtetik gorakoek (matrikulazio-urtean beteak edo beteak), baldin eta

- ikastetxeetara erregimen arruntean joaten uzten ez dien lan-kontratua izatea, edo
- errendimendu handiko kirolariak izatea.

- Era berean, hezkuntza-administrazioek, salbuespen gisa, irakaskuntza horietan sartzeko baimena eman ahal izango dute:

- hamasei urtetik gorakoei, baldin eta ikastetxe arruntetara joatea eragozten dieten inguruabarrak badituzte eta behar bezala egiaztatuta eta araututa badaude, eta
- Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez direnei.

b.-Matrikulazio-epetik kanpo

Kasu berezietan, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren berriazko baimena beharko da. Hala ere, salbuespen gisa, etengabeko baimena izango du araututako HHEn sartzeko:

- Asilo politikoa eskatu duten atzerriko nazionalitatea duten ikasleak. Hauek aurkeztu beharko dituzte:
- Segurtasun Kidegoen identifikazio-ziurtagiria.
- Helbideratze-ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzaren mendeko harrera-zentroak emana.

Asilo-eskaera izapidetzen ari bada eta une horretan ezin bada Segurtasun Kidegoen identifikazio-ziurtagiria aurkeztu, harrera-zentroaren helbideratze-ziurtagiria onartuko da matrikula egiteko, asilo-eskaeraren ziurtagiria, lortzen denean, aurkeztu arte. Dokumentazio hori dagokion HHE ikastetxeak eskatuko du, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara bidaliko du.

- Espetxean sartu berri diren ikasleak.

Matrikula egiteko, beharrezkoa izango da eskatutako dokumentazioa Bidaltzea. Eskatutako dokumentazioa bidali arte matrikula baldintzatuta geratuko da.



3.3.2.- Matrikulazioaren baldintzak

Helduak urte osorako edo lauhileko baterako matrikulatu ahal izango dira. Nolanahi ere, irailean matrikulatu direnek, bigarren lauhilekoan ikasten jarraitu nahi badute, ez dute berriz urtarrilean matrikulatu beharko eta ikastetxeak ikastokia ziurtatuko die. Hala ere, 2. lauhilekorako **matrikularen onarpena/eskaera sinatu beharko dute**. Eskaera hori sinatzerakoan, jakinarazi behar zaio eskoletara ez badoa zenbatu egingo direla bertaratze-hutsegiteak, eta matrikula ezeztatuko dela eta deialdiak zenbatuko direla, ebazpen honen 3.3.4 atalean ezarritakoaren arabera.

Ebazpen honen hurrengo puntuan ("Matrikula ofizioz baliogabetzea") adierazitakoaren arabera eguneratuko dira 2. lauhilekoko ikasleen zerrendak.

Ezin izango dira Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan sartu 2024-2025 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko ikasketa ofizialetan matrikulatuta dauden pertsonak.

Ezin izango dira modulu batean matrikulatu eremu guztiak gaindituta edo baliozkotuta dituzten pertsonak. Era berean, ezin izango da matrikularik egin gaindituak edo baliozkotuak izan diren eremuetan. Arau horren salbuespenak Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari eskatu beharko zaizkio, eta hark ebazpena emango du, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena egin ondoren.

Ikastetxearen edukierak eta ikasturte hasieran baimendutako irakasleen kopuruak baldintzatuko dute talde-kopurua. Salbuespenezko kasuetan bakarrik, aurreikusi gabeko arrazoiengatik eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren alde aurreko baimenarekin, talde-kopurua handitu ahal izango da.

3.3.3.- Deialdiak

Aurrez aurreko modalitatean, ikasleek lau deialdi izango dituzte, gehienez ere, modulu bakoitzeko ezagutza-arlo bakoitza gainditzeko. Kontaketan, modulu bakoitzeko etengabeko ebaluazioaren prozesuak eta azken ebaluazioak deialdi bakar bat kontatuko dute.

3.3.4.- Matrikula ofizioz baliogabetzea.

Irakaskuntza guztien zuzeneko modalitatean, matrikulak indarrean jarraitzeko, ezinbestekoa da prestakuntza-jardueretara joatea. Ikasleren batek hurrengo atalean zehazten diren hutsegiteak edo gehiago egiten baditu eta ez baditu justifikatzen, zuzendariak, ikasketaburuak proposatuta, matrikula ofizioz baliogabetzea erabakiko du.

Justifikatu gabe **hamar egunez** eskoletara huts eginez gero, ikasketaburuak jakinarazpena igorriko dio ikasleari edo haren legezko tutoreari, ikaslea adin txikikoa bada. Jakinarazpen hori bidali eta gero, justifikatu gabe beste **bost egunez** huts eginez gero, matrikula ofizioz baliogabetuko da, eta horren berri emango zaio ikasleari. Matrikula ofizioz baliogabetzen bada, matrikulazio hori ikasleak modulu bakoitzaren ezagutza-eremu bakoitza gainditzeko dituen lau deialdietan kontabilizatuko da.

3.3.5.- Matrikularen baja

Araututako HHEko matrikula bati baja emateko arrazoiak honako hauek dira:

- Erregistro okerra edo bikoiztua.



- EAEko beste zentro batera lekualdatzea.
- Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora aldatzea

3.3.6.- Matrikulari uko egitea

1.-Ikasleek ikasturte bakoitzean egiten diren deialdietako bati edo bieie uko egiteko eskatu ahal izango diote ikastetxeko zuzendaritzari, agiri bidez justifikatuta, jakintza-arlo guztietarako edo batzuetarako.(ikus II.eranskina)

2.-Uko egiteko eskatzen den eremuaren edo eremuen azken ebaluazioa baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztuko da.

3. – Uko egite hori salbuespenezkoa izango da, eta honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean bakarrik emango da:

- a) Bi hilabete baino gehiagoko absentzia dakarren ikaslearen gaixotasun luzea edo istripua; kasu horretan, 2. puntuari adierazitako denbora-mugak ez du eraginik izango.
- b) Uko egiteko eskatzen den eremuak esleituta duen ordutegiarekin bateraezina den lan-harremana hastea lanpostu batean.
- c) Ikasketetan normaltasunez aritzea eragozten duten betebeharrak pertsonal edo familiarrak.

4. – Ikastetxeko zuzendariak eskaera arrazoituta ebatziko du, gehienez ere hamar eguneko epean. Ebazpenaren kopia bat ikaslearen ikasketa-espeditari dagokion aplikazio informatikoan erantsiko da, interesdunak aurkeztutako dokumentazioarekin batera.

3.3.7.-matrikula lekuz aldatzea

Ikasle batek bere matrikula Euskal Autonomia Erkidegoko HHEko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen badu ikasketekin jarraitzeko, matrikulatuta dagoen ikastetxean egingo du eskaera. Jatorrizko ikastetxe horrek helmugako ikastetxean matrikulatzeko eskatuko du, eta Lekualdatzeko aukera egiaztatuta, ikasleak sinatutako eskaera bidaliko dio. Bertan, datu hauek agertuko dira (ikus eranskina).

- a) Jatorrizko ikastetxearen eta ikaslearen identifikazio-datuak.
- b) Maila, modulua eta egiten dituen esparruak.
- c) Destinoko zentroa eta ordutegia (goizez/arratsaldez/gauez)
- e) Egokitze jotzen diren ohar guztiak.
- f) Lekualdatzeko arrazoiak. helbide-aldaketa, lan-kontratua, gaixotasuna edotabestelakoak Justifikazio dokumentala aurkeztu behar da .

Lekualdaketa onartu eta eskabidea aplikazio informatikoan sartu ondoren, jatorrizko ikastetxeak baja emango dio matrikulari. Behin hori eginda, destinoko ikastetxeak matrikula horren alta egingo du bere ikastetxean.

Lekualdaketa lauhileko baten erdian egiten bada eta matrikulari alta emateko epea itxita badago, destinoko HHE zentroak pertsonaren datuak grabatuko ditu eta matrikulazioa eskatuko dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, horretarako beharrezkoak diren datu guztiak erantsita.

Ikastetxe berriak, ikaslea bere ikastetxean matrikulatuta dagoenean, espediente osoa kontsultatu ahal izango du espedienteen aplikaziotik.



Ikastetxeek egokitzat jotzen badute, telefono edo posta elektronikoko bidez jakinaraziko dira lekualdaketa hori arintzeko.

4.- EBALUAZIOA

Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa irakaskuntza horien antolamendua ezartzen duen Aginduan adierazten denaren arabera egingo da:

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 20koa, Hezkuntza sailburuarena, helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren berriazko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Era berean, helduen hezkuntza presentzialeko ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioak honako araudi hau beteko du:

77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako ebaluazioa etengabekoa izango da. Ikasleak ez ezik irakaskuntza-praktika ere ebaluazioaren gai izango da eta, oro har, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan eta ikasketa-proiektuan eta hura gauzatzean, urteko planean, jasotako alderdi guztiak.

Urteko planaren ebaluazioari dagokionez, curriculum-sekuentziazioan sartu behar diren erabakiak eta aldaketak ebatziko dira lauhileko bakoitzaren azken astean egin beharreko irakasleen batzarrean. Erabaki horiek urteko memorian sartuko dira eta hurrengo urteko proiekturako oinarri izango dira. Memoria horrek berriazko atal bat izango du, non arautu gabeko heziketa-programen ebaluazioa egingo den.

Ikasleen gaitasunen ebaluazioa bana banakoa, jarraitua eta globala izango da, eta une hauek dira garrantzitsuenak: hasierako eta amaierako ebaluazioa.

4.1.- HASIERAKO BALORAZIOA

Nahitaez, ikastetxeko irakasle taldeak heldu bakoitzari hasierako balorazioa egingo dio, aurretiaz dituen jakintzei eta esperientziei lotuta, kontuan hartu gabe jakintza eta esperientzia horiek prestakuntza-ibilbide konbentzionaletatik kanpo eskuratu dituen. Ikaslearen espedientean idatziko dira hasierako balorazioaren ondorioz interesdunak egin behar ez dituen moduluak, eta adieraziko da zein diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko egin eta gainditu behar dituen esparruen moduluak eta mailak.

Ikaskuntzen hasierako balorazioak honako hauek aitortuko ditu:

- a) helduek egiaztatzen duten irakaskuntza arautua, 2021eko maiatzaren 20koa, Hezkuntza, sailburuarena, pertsona helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berriazko curriculuma erabaki eta Euskal Autonomiako Erkidegoan ezartzen duen Aginduaren III. Eranskineko baliokidetzen taulan jasotakoaren arabera.
- b) aitorten ofizialerako ezartzen den gailuaren bidez aitortutako oinarrizko kompetentziak.
- c) ezagutza eta esperientzia profesionalak, bai eta hezkuntza ez-formal eta informalearen bidez eskuratutakoak ere.



d) gutxienez urte akademiko batez utzita egon ondoren, berriz ere ikaskuntza hauetara itzuli nahi dutenei, baldin eta prestakuntza arautu, esperientzia profesional, prestakuntza ez-arautu edo esperientzia ez-profesional berria egiaztatatu nahi badute.

Hasierako balorazioa osatzeko, probak egin ahal izango zaizkie ondorengo hauei:

- a) prestakuntza arautua, esperientzia profesionala, prestakuntza ez-arautua edo esperientzia ez-profesionala egiaztatzerik ez dutenei.
- b) III. Eranskineko taulak aplikatuta egin zaien balorazioarekin ados ez daudenei.

Ikasleak kasuan kasuko gradu eta moduluan sartzeko bakarrik izango dira baliozkoak emaitzak. Hasierako ebaluazioaren ondorioz, ez da aurreko ikasturteak, graduak edo moduluak gainditu izana aitortuko, ezta inolako ziurtagiririk lortuko ere.

Irakasle-taldeak, ebaluazio horretan oinarrituz, egokien deritzon mailaketak osatuko ditu irailean eta otsailean, eta talde eta modulu egokienetan sartuko ditu helduak. Gerora, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari horren berri emango dio, hark onartu eta martxan jar dezan.

Taldeak, oinarrian, 20 ikaslekoak izango dira Hasierako Irakaskuntzak I graduak eta 30 ikaslekoak Hasierako Irakaskuntzak II. eta Bigarren Hezkuntzako graduak. Alabaina, taldeko ikasle-kopurua handitzeko ratio hori hiru mailatan handitu ahal izango da. ikasleak arloka matrikulatzen direla aintzat hartuz eta ikasturtea hasi eta gero baja asko izaten direla kontuan hartuta.

Ez da **14 ikasle** baino gutxiagoko talderik onartuko Hasierako Irakaskuntzako I. graduak, ez eta **17 ikasle** baino gutxiagokorik ere gainerakoetan, salbu eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak salbuespen gisa baimentzen baditu gradu berean maila desberdinetako ikasleek osatutako talde mistoak.

Hasierako Irakaskuntza I zein II graduak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan fusionatu egin ahal izango dira modulu desberdinetako ikasle-taldeak. Nolanahi ere, Hasierako Irakaskuntza I eta II graduak, gehienez ere, bakarrik hiru modulu desberdinetako ikasle-taldeak eratu ahal izango dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, maila bereko moduluak ikasleekin sortu ahal izango dira taldeak, gehienez ere.

Modulu desberdinak fusionatzen dituzten taldeetan, honela geratzen da gutxieneko ikasle-kopurua:

- Hasierako Irakaskuntza I: gutxienez **12 ikasle**.
- Hasierako Irakaskuntza II eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: gutxienez **15 ikasle**.

Edonola ere, I. eta II. hasierako irakaskuntzen kasuan, gehienez ere hiru modulu desberdinetako ikasle-taldeak sortu ahal izango dira; Bigarren Hezkuntzan, berriz, maila bereko bi moduluak (G3M1/G3M2 eta G3M3/G3M4) ikasle-taldeak soilik sortu ahal izango dira.

Baimendutako salbuespenetan, zera egin beharko da EED aplikazioan:

- Talde ofizialak nahiz ikasleak matrikulatuta dauden taldeak sortuko dira (adibidez, Hasierako Irakaskuntzako I. moduluko ikasleak, II. modulukoak eta IV. modulukoak).



- Ikasle kopuru txikiko taldeak direnez, irakasle bakar batek eskolak eman ditzake maila desberdinetako ikasleek osatutako talde batean (adibidez, eskolak emango dizkie saio berean Hasierako Irakaskuntzako I. moduluko ikasleei, II. moduluko ikasleei eta IV. modulukoiei). Horretarako:

- Sortutako talde ofizial bakoitzean (adibidean 3 talde ofizial izango lirateke), ikasle bakar batek saio berean eskolak ematen dituen talde ofizial bakoitzari dagozkion jarduerak sortuko dira.
- Ikasleak aldi berean gauzatzen dituen jarduerak direnez (saio berean, maila desberdinetako ikasleei), irakaslearen ordutegi-taulako lauki berean agertuko dira.

4.2.- ETENGABEKO EBALUAZIOA

Aurrez aurreko modalitatean, ikasleen ebaluazio jarria egin ahal izateko, ikasleek modu erregularrean joan behar dute ikasketa-plana osatzen duten arloetarako programatutako eskoletara eta jardueretara eta irakaskuntzetarako programatutako jarduera osagarrietara; hala, ezingo dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu % 20tik gorako absentismoa duten ikasleak. Ikastetxeek baldintza horren berri emango diete ikasleei, matricula egiterakoan eta ikasleen bertaratzeak kontrolatuko dira, ebazpen honen 3.1 apartatuan adierazitakoari jarraikiz, eta hori egiteko, «Notak eta hutsegiteak» aplikazioa erabiliko da.

Etengabeko ebaluazioaren prozesuan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalako, hezkuntza indartzeko neurriak ezarriko dira. Ikasturtean noiznahi har daitezke neurri horiek, zailtasunak hauteman bezain laster, ikasleek ezinbesteko ikasketak eskura ditzaten hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko.

Ebaluazioa jarraitua denez, prozesu osoan hartutako oharren eta egindako ekintzen emaitza izango da ebaluazioa, bai eta ikaslearen autoebaluazioarena ere.

Etengabeko ebaluazioaren prozesuan moduluaren arlo batzuk gainditu ez dituzten ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioa egiteko eta ebaluazioa ikastaldia amaitu ondoren egingo da, Antolamendu edo Funtzionamendu Araudian edo antzeko agirian ezarritakoaren arabera.

Etengabeko ebaluazio-prozesuan parte hartu ez duten edo ebaluazio jarraitua egiteko eskubidea galdu duten ikasleek aurrez aurreko eta idatzizko proba bat egin beharko dute modulu bakoitzeko arlo bakoitzean, eta ikasitako arlo osoa hartuko du. Irakaskuntza horiek emateko baimena duen ikastetxe bakoitzean eraturako irakasle-taldea arduratuko da proba horietaz. Proba horietara aurkezteko ez da nahitaezkoa izango aurrez aurreko eskola-orduetara joatea.

Bertaratze-asistentziarena HHEko AJAn zehaztuko da, eta bertan erabakiko dira ikaslearen aprobetxamendu eta eboluzio egokirako egokitzat jotzen diren gutxieneko bertaratze-baldintza zehatzak, hauek kontuan hartuta

- Bertaratze-hutsegiteak ikasketa-burutzak justifikatzen ditu ofizialki, AJAn adostutako eta bildutakoaren arabera.
- Ikasle guztien eskubidea eta betebeharra da eskolara bertaratzea, bai eguneko ikasketetan, bai gauekoetan. Inola ere ezin da borondatezko bertaratzea ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen jakintzagaietan.



- Tutorearen, orientatzailearen eta irakasleen eginkizuna da, besteak beste, ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzea eta irakaskuntza-prozesuak ebaluatzea. Ikasleen hezkuntza-orientazioa, ikasketa-orientazioa eta lanbide-orientazioa, zerbitzu edo sail espezializatuekin lankidetzan.

4.3.- AMAIERAKO EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesua talde bakoitzeko irakasleek osatutako irakaskuntza-taldeak egingo du, eta taldeko irakasle-tutoreak koordinatuko du, beharrezko bada, ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz.

Arlo bakoitzeko kalifikazioa arlo bakoitzeko irakasleak erabakiko du. Gainerako erabakiak taldean hartuko dira, tutoreak koordinatuko irakasle-taldean.

Kalifikazioarekin batera, irakasle-taldeak ikaslearentzako txosten bat egingo du eta, bertan, haren egoera akademikoa eta etorkizunerako orientabide egokiak adieraziko ditu.

Ikasleak modulu batetik hurrengora igaroko dira, arlo guztiak gainditzen dituztenean edo arlo bakarra dutenean gainditzeke.

Gradu edo irakaskuntza bakoitza amaitzean, ebaluazio-taldeak eremu bakoitzeko gaitasunen eskurapena baloratuko du. Eremuren batean ebaluazio negatiboa egiten bada, ebaluazio-taldeak erabaki ahal izango du ikasle batek dagokion modulua egin behar duela hurrengo gradu edo irakaskuntzako moduluak egin aurretik.

Gradu edo irakaskuntza beraren barruan modulu batetik bestera igaro daiteke eremuren bat gainditu gabe, baina goiko moduluan ebaluatua izateko, gaindituta eduki behar da beheko modulua, dagozkion probetara aurkeztuta.

Salbuespen gisa, irakasle-taldeak bi arlotan ebaluazio negatiboa duen ikaslea hurrengo modulura igarotzea erabaki ahal izango du; betiere, horietan lortutako kalifikazioa gutxienez lau bada eta irakasle-taldeak uste badu aurreikusitako kompetentziak eskuratu dituela, erreperatze alderako aukerak dituela eta hurrengo modulura igarotzeak ikaslearen eboluzio akademikoari mesede egingo diola. Erabaki hori behar bezala dokumentatu, eta ikaslearen espedientean jasoko da.

Bigarren hezkuntzako azken bileran, ebaluazio-taldeak ikasle bakoitzaren prestakuntza-ibilbide osoa ebaluatu eta kalifikatuko du, arloka eta moduluka. Arloka eta moduluka egindako kalifikazioa ikaslearen espedientean eta dagozkien ebaluazio-agirietan agertuko da.

Gradu bateko moduluren bat edo arloren bat gainditu duen ikasleak ezingo du berriz ere arlo horretarako matrikula egin.

Eremu bakoitzak kalifikazio bakarra izango du, eta ebaluazioaren emaitzak honela jasoko dira:

1. Hasierako irakaskuntzak I graduan, modulu bakoitzeko ebaluazioaren emaitzak honela adieraziko dira: GAI (G) edo EZ GAI (EG); negatibotzat jotzen da EG kalifikazioa, eta positibotzat, aldiz, G kalifikazioa.
2. Hasierako irakaskuntzak II graduan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua lortzeko irakaskuntzetan, ebaluazioaren emaitzak kalifikazio kualitatibo



hauekin adieraziko dira: Gutxiegi (G), Nahiko (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO), Bikain (B); negatibotzat jotzen da Gutxiegi kalifikazioa eta gainerakoak, aldiz, positibotzat.

Adierazpen horiek kalifikazio kuantitatiboarekin ere adieraziko dira, dezimalik gabe, batetik hamarrerako eskalan. Honakoak dira baliokidetzak:

- Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.
- Nahiko: 5.
- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7 edo 8.
- Bikain: 9 edo 10.

4.4.- IKAS-ERRENDIMENDUARI BURUZKO BALORAZIO OBJEKTIBOAREN ESKUBIDEA

Ikasle guztiek dute beren errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiborako eskubidea. Bada, erabili ahal izango badute, beharrezkoa da aurrez jakin dezaten zein diren ebaluazio-irizpideak, gutxieneko zer helburu lortu behar dituzten eta gutxieneko zer eduki menderatu behar dituzten ziklo eta maila bakoitzeko irakasgai bakoitzean ebaluazio positiboa izateko. Hortaz:

- a) Ikastetxeko curriculum-proiektuak eta sail didaktikoen dokumentazioak aipatutako puntuak bildu beharko dituzte.
- b) Ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiak bermatu behar du ikasleek eta haien legezko ordezkariak dokumentu horiek eskura izango dituztela.

Ikastetxeek arlo bakoitzari aplikatuko zaizkion irizpideak jakinarazi behar dituzte ikasturte hasieran.

Ikasleek aukera izan behar dute errendimenduaren ebaluazioan eragina duten lan, proba eta ariketa guztiak, zuzendu ondoren, eskuratzeko, baita alegazioak aurkezteko eta lan, proba eta ariketen zuzenketa berrikusteko eskatzeko ere. Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

Ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Araudian, erreklamazio-prozedura ezarri beharko da, eta, hartarako, berrikusteko epeak eta baldintzak –irakasleentzat lotesle direnak– seinalatuko dira; betiere, kontuan izanik honako hauek: curriculum ofiziala, ikastetxearen curriculum-proiektua, programazioak eta argitara emandako kalifikazio-irizpideak.

Erreklamazio-prozedura hori ez badago, Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa arautzen duen Aginduan ezarritakoa aplikatuko da.

4.5.- SALBUESPENAK

Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan, Dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta hezkuntza Sailburuordetzak horretarako emandako urteko ebazpenetan



ezarritakoarekin bat etorri izapidetuko da I.- Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaz salbuesteko aukera. Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Burutzatik idazki bat bidaliko zaie, ikasturte hasieran, ikastetxeetako zuzendaritzeari, eta bertan, sailburuordearen urteko ebazpena betetzeko jarraitu behar den prozedura zehaztuko da. Ebazpenak, halaber, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaitik salbuesteko baldintzeari buruzko argibideak ematen ditu. Idazkian, besteak beste, alderdi hauek zehaztuko dira:

- Ikasleek edota legezko tutoreek eginiko salbuespen-eskaerak.
- Ikastetxeek eskaerak kudeatzea, eskaera motaren arabera.
- Izapideak.
- Eskaerak egiteko epea.

Gogorarazten da «ebaluaziotik salbuestea, baina ez irakaskuntzatik» motako kasuetan, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaitik salbuesteak esan nahi duela ikasleak ebaluatuko ez diren arren, derrigorrez joan behar dutela eskolara, eta, matrikulatu diren irakasgaiko maila pixkanaka-pixkanaka lortzen lagunduko dien plan indibiduala ezarri ondoren, arreta jarri behar zaie.

4.6.- DOKUMENTAZIOA

Matrikula izapidetzeko edo formalizatzeko, espedientea osatzeko, ebaluazio-aktak betetzeko eta egiaztagiria jaulkitzeko beharrezko dokumentazio guztia elektronikoki egingo da, Hezkuntza Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez.

4.7.- EGIAZTAGIRIAK ETA TITULUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua emateko proposamena urteko bi alditan egingo da; hau da, beren prestakuntza-ibilbidea amaitu duten pertsonen kasuan, lauhilekoak amaitzean, Hezkuntza Administrazioak horretarako xedatzen duenaren arabera.

5.- IRAKASLEAK

5.1.- ANTOLAMENDUA

5.1.1.- Izendapena

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak xedatutakoaren arabera, Zuzendaritza Taldearen ardura da irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte hasieran erabakitzea irakasleei ikastetxeko unitateak zein irizpideren arabera esleituko zaizkien. Betiere, irakasleari bere kidegoa eta arlo bakoitzeko irakasgaitasun-aitormena edo espezialitatea errespetatuko zaizkio.

Ikasketa arautuen matrikula-epea amaitzean, zuzendaritza-taldeak dauden irakaskuntzen, arloen eta ikasle-taldeen irakasleak izendatuko ditu.

Gainerako orduekin, zuzendaritza-taldeak arautu gabeko prestakuntzaren eskaintza antolatuko du.



Irakasleen izendapenak egiteko, zuzendaritza-taldeak ez du irakasle-postuari dagokien espezialitatea izango soilik kontuan. Horrekin batera, kontuan hartuko du beste zein espezialitaterako trebatuta dagoen eta irakaskuntza-lanean zenbateko esperientzia duen, irakasle bakoitzaren ordutegia betetze aldera.

Taldeak esleitzean, irakaskuntzaren kalitatea bilatu eta oreka lortzeko irizpideak bete beharko dira. Edonola ere, irizpide hauei jarraitu behar zaie:

1.- Maisu-maistren kidegoko irakasleek irakatsiko dituzte Hasierako Irakaskuntzak I eta II graduak. Halaber, irakasle horiek etorkinentzako gaztelaniako eta euskarako ikaskuntza-taldez arduratuko dira, lehentasunez.

2.- *Azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuak (haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan lan egiten duten maisu-maistren kidegoko irakaskuntza-espezialitateak ezartzen dituena)* – azaroaren 9ko BOE–, bere lehenengo xedapen iragankorrean, ezarri zuen Maisu-maistren Kidegoko irakasleek, baldin eta LOE indarrean sartu aurretik (2006ko maiatzaren 24an) behin betiko lanpostua betetzen bazuten helduen hezkuntzako ikastetxeren batean eta gutxienez ikasturte batean irakasle modura aritu badira helduentzako Bigarren Hezkuntzan DBHko 1. eta 2. mailako baliokidean, orduan lanpostu horietan jarraitu ahal izango dutela mugarik gabe, baldin eta etenik gabe maila horretan aritu badira irakasten; era berean, hezkuntza-administrazio bakoitzak helburu horretarako zehazten dituen maila horietako lanpostu hutsetara mugitu ahal izango dira. Ondorioz, bigarren hezkuntzako lehenengo bi moduluak eman ahal izango dituzte bai Maisu-maistren Kidegoko irakasleek, baldintza horiek beteta, bai Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoek.

3.- *Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta erregimen bereziko ikasketen irakaskuntzan jarduteko prestakuntza-betekizunak zehazten eta espezialitateak ezartzen dituena)* –28ko BOE– 3.5 artikuluan ezarri zuenez, helduen eskaintza bereziko berezko eremuak «Katedradunen eta Bigarren Hezkuntzako kidegoetako funtzionarioek emango dituzte, baina, horretarako, eremu horiek osatzen dituzten ikasgaiak emateko irakaskuntzako atribuzioak izan behar dituzte». Ondorioz, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleek emango dituzte bigarren hezkuntzako azken bi moduluak.

4.- Maisu-maistren Kidegoko eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleek ikastetxearen urteko planean onartuta eta zehaztuta dauden heziketa-programa arautu gabeak emango dituzte. Edonola ere, arlo bakoitzean irakasteko eskumena duten bigarren hezkuntzako irakasleek emango dituzte beste irakaskuntza batzuetarako sarbidea prestatzen duten ikastaroak, ahal izanez gero.

5.- Halaber, ikastetxeko irakasle guztiek, beren jatorrizko kidegoa zein den kontuan hartu gabe, oinarrizko prestakuntzan ikastetxeak ezarritako heziketa-errefortzuetan eta laguntza pedagogikoetan irakatsi beharko dute beren asteko irakaskuntza-dedikazioaren ordutegia osatu arte.

6.- Aurreko irizpideak beteta, ahal dela saihestu egingo da beharrezkoak direnak baino irakasle gehiagok dagokien ikastetxearen menpe dauden txanda eta/edo zirkulu edo gela desberdinak banatu behar izatea.



Irakasle batek finkatutako irakaskuntza-dedikazioko gutxieneko ordu-kopurua betetzen ez badu, zerbitzu premiek hala eskatzen badute, beste eskola batean osatuko du ordutegia. Kasu horretan, egoera hori kontuan izango da ordutegiak osatzeko orduan, irakasle horrek egun berean ikastetxe batean baino gehiagotan eskolarik eman ez dezan, ahal dela, eta ezin bada, joan-etorriak egiteko erabilitako denbora hezkuntza-arretako orduetatik eta ikastetxean eman beharrezko ohiko orduetatik kenduko da.

7.- Ikastetxea hobeto antolatzeko eta ikasleen beharrei erantzuteko asmoz, ikastetxeko zuzendaritzak legezko eskumena du esleipen guztiak egokitasun-printzipioaren arabera egiteko, sailen eta irakasleen proposamenak entzun ondoren.

8.- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ez baditu dagozkion irizpideak finkatu, ikasketaburuak taldea eta txanda aukeratzeko ondoz ondoko txanda-sistema erabiliko du irakasle guztientzat, behar bezala ordenatuta, honako irizpide eta arau hauen arabera: irakaskuntzaren atribuzioa eta funtzioa erregulatzen duten arauak, langileak atxikita dauden lanpostuak, ekitate-irizpideak eta irakaskuntza-kalitatea bilatzeko irizpideak, bai eta nahitaez bete beharreko irizpide eta arauak ere.

5.1.2.- Urteko lanaldia

Lanaldi motak eta egutegia gorabehera, langileen arduraldia 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculuma betetzeko orduak, ordutegi osagarria eta irakasleek ikastetxean eman beharreko orduak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 50. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak gozatzeko eskubidea izango dute, edo, zerbitzu-denbora urtebetera iristen ez bada, proportzionalki egokituko litzaizkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Aipatutako oporraldia urte bakoitzeko abuztuan zehaztuko da. Iraileko lehenengo lanegunean, irakasle guztiak egon behar dira dagokien ikastetxean lanerako prest.

Oporraldia eten ahal izango da gaixoaldi edo istripuren bat izanez gero. Interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du, egoera hori gaindituta, medikuak alta eman ondoren. Hartu gabe geratu diren opor-egunak aldi bakarrean hartu beharko dira; ahal dela, eskolarik ez dagoenean.

5.1.3.- Asteko lanaldia

Eskolaren antolaketa errazteko, autonomia errespetatuz, irakasleen eginkizunak, modalitateak eta dedikazioak zehaztuko dira jarraian, klaustroa osatzen duten pertsonen aniztasuna eta premia espezifikokoak jasoz.



a) Arduraldi arrunta duten irakasleak

Irakasleek ikastetxean duten zuzeneko dedikazio arrunta astean 30 ordukoa izango da. Horietatik 23 irakaskuntza-arduraldikoak izango dira; halakoek ikasleekin zuzeneko harremana izatea ekarriko dute, eta oinarrizko konpetentzia guztien bitartez haien irteera-profila lortzea izango dute helburutzat. Irakaskuntza-arduraldiko orduetan honakoak sartuko dira: dagokion espezialitateko curriculumaren irakaskuntza-orduak; ikasleekiko tutoretzakoak, hezkuntza sendotzeko orduak, ikasleek parte-hartzeko ikastetxearen heziketa-proiektuan onartuta dauden proiektuetako jardueretan ematen diren orduak; eta hezkuntza-arretako orduak. Horrez gain kontuan hartuko dira mintegi didaktikoari edota koordinazio pedagogikoari dagozkion bileretan ematen diren orduak, prestakuntza-jardueretan eta ikastetxearen heziketa-proiektua garatzeko edozein jardueratan ematen direnak.

Astero zuzenean ikastetxeari eman behar dizkioten gainerako 7 orduak hilabeteka zenbatuko dira, eta ordu horiek honako jarduera hauek egiteko erabiliko dira: etengabeko prestakuntza, departamentuaren jarduera areagotzea, kide anitzeko organoen bilerak egitea, ebaluazio-batzordeen bilerak egitea, ikastetxea planifikatu eta antolatuko duten tresnak prestatzea, taldeko eta mailako irakasleak koordinatzeko bilerak egitea, Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordearen eta ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren batzordearen lanak egitea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egitea.

Ikastetxeari zuzenean eskainitako ordu horiei dagokienez, zuzendaritzak denbora jakin bat ezarri ahal izango du irakasle guztiak batera egon daitezen, hau da, prestakuntza-lanak egin behar direnean irakasle guztiak batu daitezen. Zuzendaritzak zehaztuko ditu irakasle guztiak ikastetxean aldi berean egoteko aldi horiek, ikasturtearen hasieran.

7 ordu horien plangintza ikastetxearen Urteko Planean jaso behar da.

Ordutegiaren gainerakoa, ikastetxeari zuzenean eskaintzen ez zaion ordutegi gisa hartua, irakaskuntza-jarduerak prestatzeko, azterketak zuzentzeko, profesionalki trebatzeko eta irakaskuntzarekin lotutako beste hainbat gai lantzeko erabiliko da.

Dena delakoagatik, irakasleen irakaskuntza-dedikazioa laburragoa bada oro har ezarritako orduak baino, zuzendariak ordutegia luzatu beharko die, ikastetxean eman beharreko 23 orduak osatu arte, kasu guztietan.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzak eta prestakuntza errazte aldera, gomendatzen da irakasle guztien asteko arduraldia eta ikastetxean egon beharreko orduak denbora-tarte berean izatea, hezkuntza-komunitateak berak onartutako proiektu eta zerbitzuen ondoriozko salbuespenak salbuespen.

Urtarrilean egiten den bigarren matrikulazioaren ondorioz, ikastetxean dauden beharrak edo ikastalde-kopurua handitu badira eta zuzeneko irakaslanean ordu gehiago eman behar dela iritziz gero, behar adina ordu hartuko dira. Horrelako kasuetan, beharrezko izanez gero, ikastetxearen ordutegia aldatu ahal izango da, baina, nolana ere, irakaslearen jarraipena ziurtatu beharko da 1. lauhilekoan emandako moduluaren jarraipena den 2. lauhilekoa emateko, eta inola ere ez du aldaketarik edo kalterik ekarriko irakasleen ordutegirako.

Irakasleek ikastetxeari zuzenean eskaini gabeko dedikazio arrunta, 1462 orduko urteko lanaldia osatu arte, atal honetan erantsitako koadroan ezarritako zereginetarako erabiliko da (urteko lanaldia osatu arteko gainerako orduak).



IRAKASLEGOAREN JARDUNALDIAREN LABURPENA					
1462H URTEKO LANALDIA	30H ZUZENEKO DEDIKAZIO ARRUNTA IKASTETXEAN	23H IKASTETXEAN EMAN BEHARREKO ORDUAK	20H ASTEAN	17/18 H ASTEAN	-IRAKASTORDUAK -HEZKUNTZA ERREFORTZUAK
				2/3 H ASTEAN	<ul style="list-style-type: none"> TUTORETZA HEZKUNTZA ARRETA (ZAINTZAK)
		3H ASTEAN	<ul style="list-style-type: none"> SAILEKO BILERAK KOORDINAZIO BILERAK FORMAKUNTZA BESTE JARDUERA BATZUK 		
	7H ASTEAN JARDUERA OSAGARRIAK (Ez nahitaez Ohiko egonaldikoak)	<ul style="list-style-type: none"> SAILAREN JARDUERAK BILERAK (KLAUSTROAK, IKASGUNEAK...) EBALUAZIO-BATZORDEAK HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO BATZORDEA BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK IKASTETXEKO BESTE PROIEKTU BATZUK HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN HELBURUAK, XEDEAK ETA FUNTZIOAK. 			
GAINONTZEKO ORDUAK URTEKO LANALDIA OSATU ARTE	<ul style="list-style-type: none"> ESKOLAK PRESTATZEA BILERAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK PRESTATZEA PROGRAMAZIOAK PRESTATZEA AZTERKETEN ZUZENKETA HOBEKUNTZA PROFESIONALA BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK 				

b) Lanaldi murriztua duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa lana eta familia-bizitza bateratze aldera eskatzen denean, ikastetxeetako zuzendariak ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegia eskaera horren arabera izan dadin, betiere neurri horrek ikasleei eskaini beharreko arretan eragin negatiborik ez badu. Nolanahi ere, beharrezkoa den koherentzia pedagogikoa eta antolaketakoa bermatu beharko da.

Lanaldiaren erdia murriztea

Lanaldi erdia duten irakasleek astean 15 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 11 ikastetxean eman beharko dituzte. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 4 orduak eta ikastetxean zuzenean eman behar ez dituzten gainerako orduak 3.1.3.a apartatuan aipatutako zereginak betetzeko izango dira.

Lanaldiaren herena murriztea

Lanaldiaren herena murriztuta duten irakasleek astean 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 15 ikastetxean eman beharko dituzte. Ikastetxean eman behar dituzten orduak,



asteko lanaldia osatzeko gainerako 5 orduak eta ikastetxean zuzenean eman behar ez dituzten gainerako orduak 3.1.3.a apartatuan aipatutako zereginak betetzeko izango dira.

Lanaldiaren seirena murriztea

Lanaldi efektiboaren seirena murriztuz gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 25 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik 19 ikastetxean eman beharko dituzte. Ikastetxean eman beharreko orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 6 orduak eta ikastetxeari zuzenean eskaini behar ez zaizkion gainerako orduak 3.1.3.a ataleko irakasleen lanaldiaren laburpen-taulan aipatutako zereginetara bideratuko dira.

Irakasleen ordutegia

Irakasleek ikastetxeari zuzenean eskainitako ordu arruntak astean 30 ordukoak dira lanaldi osoan, eta astean 25, 20, 15 eta 10 ordukoak lanaldiaren 5/6, 2/3, 1/2 eta 1/3 dituzten irakasleentzat, hurrenez hurren, eta honela banatuko dira:

- Lanaldi osoa duten irakasleentzat eta astean 1/6eko murrizketa dutenentzat: 5 egun astean, astelehenetik ostiralera, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi ordu emanaz.
- Lanaldiaren 2/3 duten irakasleentzat: astean 4 egun, eta egun bakoitzean gutxienez bi ordu ikastetxean.
- Lanaldiaren erdia duten irakasleentzat: astean 3 egun, eta gutxienez bi ordu ikastetxean, egun bakoitzean.
- Lanaldiaren herena duten irakasleentzat: astean 2 egun, eta egun bakoitzean gutxienez bi ordu ikastetxean.

c) Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senide batez arduratzeko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraituz, 50 ordura bitarteko baimena izango dute ikasturteko. Oro har, ordu-kreditu hori egunean erabiltzeko gehieneko denbora bi ordukoa izango da, eta laneko sarreretako eta irteeretako batekin bat etorri hartu beharko da. Baimena hartzen denean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Baimen hori ikastetxeko Zuzendaritzarekin koordinaturik baliatu beharko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzua osatu ahal izateko, eta, hori gauzatzeko orduan, koherentzia pedagogikoa eta antolakuntzako bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegia prestatzeko, curriculuma eman behar ez duten orduen banaketan, aintzat hartuko dira baimen hau onartuta duten pertsonen adierazitako premiak. Baimen honek ez du esan nahi aurretik finkatutako ordutegia aldatzeko eskubiderik dagoenik.

Eskatzailearen eta ikastetxeko Zuzendaritzaren artean baimen hori hartzeko moduaren inguruan desadostasunik sortuz gero eta interesduna Zuzendaritzaren erabakiarekin bat ez badator, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako Lurraldeko ordezkariari, eta hark ebaziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren.

d) Zuzendaritza-taldea

Zuzendaritza-taldeak, ikastetxe bakoitzaren arabera, zenbait ordu izango ditu erabilgarri eta bere kideen artean banatuko ditu ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak zehazten



duenari jarraikiz, Ordezkaritza Organo Gorenak onartu badu eta Ikuskaritzaren legezkotasun-txostena jaso badu. Zuzendaritza-taldeari esleitutako ordu horiek eta ikasleekiko zuzeneko laguntza-eginkizunak betetzeko orduak maila bera dutenez, karguari dedikatu beharreko ordu gisa agertu beharko dira ordutegian. Ahaleginak egingo dira, bidenabar, ikastetxea zabalik dagoen artean zuzendaritza-taldeko kide bat gutxienez bertan egon dadin.

Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztuta dauden zuzendariaz, ikasketa buruaz eta idazkariak gain, eta Lege horren 30.2 artikuluan xedatutakoa betez, ikastetxean bertako Antolamendu eta Jarduera Araudian ezarritako beste zuzendaritza-kargu batzuk izan daitezke. Hezkuntza-administrazioak erabakiko du zuzendaritzako zein kargudunek izango duten dagokien osagarri ekonomikoa.

40 ikaslez osatutako zirkuluak esleiturik dituzten ikastetxeetan, Irakasle Arduradun bat egongo da gutxienez. Hark zuzendaritza-karguaren maila izango du eta ondoko funtzio hauek beteko ditu:

- a) Ikastetxeko zuzendariak emandako aginduei jarraikiz, zirkuluaren funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea.
- b) Arau, xedapen, proiektu eta jarduketa-programak betearaztea, bai eta ordezkaritzen jardunean eragina duten erabakiak ere.
- c) Zuzendariaren ordezkaritza gisa, zirkuluko langile guztien buruzagitzaz arduratzea, langile horiek bertan duten jarduerari dagokionez, gai horretan ikastetxeko zuzendariak dituen eskuduntzak errespetatuz eta, betiere, haren aginduei jarraituz.
- d) Zirkuluko irakasleek ikasketa-ordutegiak bete ditzaten zaintzea.
- e) Instalazioak, altzariak eta zirkuluaren ikasmateriala egoera onean kontserbatzeko zaintzea.

Ikastetxean heziketa arautuan matrikulatu diren ikasle ofizialak kontuan hartuta, ikasturte honetan zuzendaritza-taldeak ondoko murrizketa hauek izango ditu bere irakaskuntza-dedikazioaren ordutegietan:

ZUZENDARITZA-KARGUEN IRAKASKUNTZA DEDIKAZIOAREN ORDUEN MURRIZKETA

IKASLE-KOPURUA	IRAKASKUNTZA-DEDIKAZIOAREN ORDUEN MURRIZKETA
0-200	15
201-400	21
401-600	24
601-800	27
801-1000	31
1001-1200	35
1201-1600	38
1.600 baino gehiago	43

Era berean, orduak murriztu ahalko dira lau urterako zuzendaritza izateagatik, eskolak hainbat auzotan edo herritan emateagatik, kudeaketa akademikorako edo administratiborako esleitutako orduak izateagatik edota zenbait proiektutan parte hartzeagatik, eta hori guztia Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren urteroko ebazpenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Ikastetxeetako ekintza guztiak burutzeko zenbat irakasle beharko diren eta dotazioa nola banatu behar den zehazteko irizpideak arautzekoa, ezarriko da.



Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren batera deitzen zaienean hartara joan ahal izateko.

Zuzenean ikastetxeari eskaini beharreko 30 orduetan egin behar dituen irakaskuntza-dedikazioaren orduak eta gainerako jarduerak jasoko dira zehatz-mehatz irakasle bakoitzaren ordutegian. Halaber, irakasleen kreditu-ordu guztien banaketa Ikastetxearen Planean jaso beharko da, eta Eskola-kontseiluak onartu beharko du.

e) Lanaldiaren herenaren murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak direla-eta, beren orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek astean 6 ordu murriztu ahalko dute zuzeneko irakaslana. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastetxean ordu gutxiago egon behar direnik.

Murrizketa-ordu horiek ikastetxearen mesedetarako erabili beharko dituzte; hau da, liburutegia zaintzen, ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoen antolakuntzan esku hartzen, hezkuntzako arreta-orduak egiten eta ikastetxeko zuzendariak agindutako antzeko zereginetan parte hartzen. Irakasleen ordutegian jasota geratuko dira horrelako lanetan ematen dituzten orduak.

f) Irakaskuntzaz kanpoko lanak: liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritzari laguntzea, kalitatearen kudeaketa, hizkuntza-normalkuntza, IKTen administrazioa eta bestelako lanak.

Ikastetxe bateko irakasle bat irakaskuntzaz kanpoko jardueraz bakarrik arduratzen bada, 30 ordu egin behar ditu astean.

Irakasle batek jardueraren zati bat irakaskuntzaz kanpoko jardueretan ematen badu, ordu eta erdi eman behar du eskola-orduei kendutako ordu bakoitzeko. Ondorioz, ikastetxean igaro beharreko ohiko ordutegiari, asteko 23 ordukoa denari, ordu erdi gehituko zaio irakaskuntzakoak ez diren lanetan emandako ordu bakoitzeko; edonola ere, asteko 30 ordukoa izango da gehienez ordutegia.

Zuzendariak finkatuko ditu liburutegia ireki eta ixteko orduak, zerbitzu horretan dihardutenen lan-eskubideak errespetatuz.

Ikastetxearen antolamendu orokorrak bide ematen badu, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak gainerako irakasleen ordu batzuk esleiri ditzake irakaskuntzaz kanpoko jardueretarako, eta hezkuntza-arretako orduak erabilita konpentsatu. Aurrez, gainerako zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatu behar du.

g) Ikastetxearen ordutegia agerian jartzea

Ikastetxearen ordutegia ikusgai egon beharko da honako toki hauetan: irakasleen gelako iragarki-oholean, ikasketa-burutzako iragarki-oholean eta ikastetxeko estamentu guztiek sartzetik duten beste tokiren batean. Halaber, ikastetxearen egoerari buruzko informazioa ere denon begi bistan egon beharko da, batez ere irakasle bakoitzaren ordutegia eta lantokia. Informazio hori guztia OOGari helarazi beharko zaio eta hezkuntza komunitateko edozein kideren esku egon beharko da. Datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokituta egon beharko da.



5.1.4.- Irakasleen bertaratzea

a) Lanorduak betetzen direla kontrolatzea

Irakasleek ordutegia bete behar dute. Hezkuntza Sailak horretarako kontrol-mekanismo egokiak erabiliko ditu. Irakasleen hutsegite guztiak behar bezala justifikatu behar dira, eta, ahal den guztietan behintzat, agiriz egiaztatu beharko zaizkio zuzendaritzari, azken honek eskatu beharrik gabe, eta indarreko araudian ezarrita den moduan.

Aurretik jakin edo aurreikusi daitezkeen hutsegiteetan, irakasleak nahikoa garaiz eta idatziz jakinarazi behar dizkio ikastetxeko ikasketa-buruari hutsegiteak eragindako taldeetako ikasleek egin behar dituzten jarduerak eta horretarako komeni diren materialak eta jarraibideak, ordezkaturako dituzten irakasleek egokiro gara ditzaten.

Irakasleak ezin badu dokumentu bidez justifikatu lanera joan ez izana, ez agertzearen arrazoiak azalduko dizkio ikastetxeko zuzendaritzari, eta arrazoi horiek bertaratze-agiriaren III. eranskinean jasoko dira. Eranskina interesdunak eta ikastetxeko zuzendariak sinatuko dute. Zuzendariaren sinaduraren bitartez, eskainitako arrazoiak ontzat emango du ikastetxeko zuzendaritzak, sinesgarritasuna eta baliozkotasuna aitortuta. Era berean, ikastetxeko zuzendaritzak ez badu nahikotzat hartzen irakasleak emandako justifikazioa, ez du eranskina sinatuko; ondorioz, hutsegitea justifikatu gabeko falta bezala ageriko da hilabeteari dagokion partean, eta dagozkion ondorioak izango ditu. Dena den, hori gertatzen bada, irakasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako Ikuskaritzaren aurrean. Azken horrek ebatziko du.

Irakasleren batek ez badu betetzen ordutegia eta ez badu ematen inolako justifikaziorik, Zonaldeko Ikuskaritza Burutzari jakinarazi behar zaio. Euskal Funtzio Publikoaren Legearekin bat, soldatetik deskontatu ahal izango zaio dagokion kopurua eta, gainera, diziplina-erantzukizuna ere ekar lezake.

Era berean, greba badago, ikastetxeko zuzendariak intzidentziaren berri emango dio Zonaldeko Ikuskaritza Burutzari, datuak zehatzuz, eta ikasleei ahalik eta arreta egokiena emateko modua antolatuko du, erabilgarri dituen giza baliabideekin.

Halaber, ikusten bada irakasle batek ez duela betetzen sartzeko eta irteteko ordutegia, zuzendaritzak eskatu beharko dio behar bezala bete dezala. Berdin jarraitzen badu, hileko bertaratze-agirian adierazteaz gain, hutsegiteak Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko zaizkie, behar diren neurriak har ditzaten.

b) Bertaratze-agiriak

Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen absentziak erregistratuko dituzte "Eguneroko eskola-jarduerak (EED)/Ordutegi-taula" aplikazioan, "Irakasleen absentismoa" erlaitz erabiliz. Erlaitz horren barruan, lanera joan ez den irakaslea adieraziko da, absentzia zein egunetan gertatu den, zer iraupen izan duen eta zergatik.

EEDn aplikazioan zabalgarri bat agertuko da huts egiteko arrazoi GUZTIEKIN, eta dagokiona aukeratu beharko da. Absentzia justifikatuko ez balitz, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori



aukeratuko du EEDko hutsegiteen zabalgarrian, eta aplikazioak automatikoki bidaliko dio jakinarazpen bat erreferentziako ikuskariari. Hark Euskal Funtzio Publikoari buruzko

Legean kasu horretarako aurreikusten diren prozedurak hasiko ditu. Kasu horietan, irakasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta berak emango du ebazpena.

Lan-baldintzak arautzen dituen akordioan aipatzen ez diren beste arrazoi batzuegatik huts eginez gero, ikastetxeko zuzendaritzak «Beste arrazoi batzuk» aukera hautatuko du EEDko hutsegiteen zabalgarrian, eta irakasleak, gainera, «III. eranskina» dokumentua bete beharko du («Irakasleen/Lan-legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak jakinaraztea» apartatuan). Esteka honetan dago:

https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&cad=rja&uact=8&ved=2ahUKEwi8-OC3t8DxAhWQzIUkHUVBDvQQFjABegQIFRAD&url=https%3A%2F%2Fwww.euskadi.eus%2Fcontenidos%2Finformacion%2Fhezkuntza_ikuskaritza_dok_abi%2Fes_def%2Fadjuntos%2FANEXO_III_Notific_Ausenc_B.doc&usg=AOvVaw0IKDVI-yuKmOUUtKT3eExL

Zuzendaritzak III. eranskina izenpetzen badu, esan nahi du bertan ematen den azalpena bermatzen duela, eta sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen dio. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da.

Irakasleen hutsegite guztiak behar bezala justifikatu behar dira, eta, ahal den guztietan behintzat, agiriz egiaztatu beharko zaizkio zuzendaritzari, azken horrek eskatu beharrik gabe, eta indarreko araudian ezarrita dagoen moduan. Hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagirietan absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia zehaztu beharko dira. Jatorrizkoak eta argiak izan beharko dira.

Aurreko ikasturteetan egin izan den bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentziak erregistratu beharko ditu hurrengo hilabeteko 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egon daitezen.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleek hutsegiteak arrazoitzeke agiriak aurkeztu behar dizkiote zuzendariari, dagokionean, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALE ikastaroetan edo antzekoetan dabilzan irakasleek ikastarora egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu behar dituzte ikastarora huts egin izana arrazoitzeke agiriak.
- Ohiko eskola-orduetan irakasleak falta badira, egoera horri aurre egin eta ikasleei arreta egokia emateko ikastetxean prestatu den prozeduraren berri eman beharko zaio Ordezkaritza Organo Gorenari.
- Eskolak behar bezala ematea eragozten duen edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio telefonoz Ikuskaritzari.
- Hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagirietan absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia zehaztu beharko dira. Jatorrizkoak eta argiak izan beharko dira.

Ikastetxe batzuetan, irakasleez gain, Saileko irakasle eta/edo lan-legepeko hezitzaile-pertsonala dago. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek irakasleen absentziak EEDn erregistratzeko erlaitza erabilia sartu ahalko dituzte datuak.



5.1.5.- Departamentuak

Ikastetxean departamentu mota bi eratu ahal izango dira: departamentu didaktikoak, hiru izango dira, bat arloko; eta departamentu ez-didaktikoak, esaterako, Orientazio Departamentua eta pedagogia antolatu eta koordinatzeko egokitzat jotzen diren guztiak. Irakasleen arloaren arabera, irakasleak departamentu didaktikora edo ez-didaktikora egongo dira atxikita. Ikastetxeko irakasle guztiak izan beharko dira departamentu didaktiko edo ez-didaktiko batekoak; 1. graduako irakasleak departamenturik antzekoenera atxikiko dira.

Horrez gain, ikastetxeko autonomiaz baliatuz, Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarri ahal izango du pedagogia koordinatzeko departamentuak edo beste organo batzuk daudela, eta egon ere aurreko ataletan zehaztutakoak baino gehiago egongo direla. Hala ere, departamentu gehigarrietako buruen izendapenek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute emango eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

Departamentu didaktikoak eta ez didaktikoak lantaldeak dira eta, bertako arduradunaren edo buruaren zuzendaritzapean, arlo berbera irakasten duten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute helburutzat. Organo horien zeregina baterako lana da, eta kide guztiei dagokie lanak egitea.

Zuzendariak izendatuko ditu departamentu-buruak, irizpide hauek kontuan hartuz betiere:

- 1.- Departamentu-burua departamentu bertako irakasle bat izango da eta ez du izango bestelako zuzendaritzako kargurik.
- 2.- Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleen artean hautatuko da departamentu-burua, departamentuko inor kidego horretakoa ez denean izan ezik. Inola ere ezingo da izendatu departamentu-buru Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoa ez den irakaslerik, departamentuan kidego horretakoa den eta beste zuzendaritza-kargurik betetzen ez duen beste irakasleren bat baldin badago.
- 3.- Aipatutako irizpide horiek errespetatuz, Ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiak xedatzen duena hartu behar da kontuan departamentu-buruak hautatzeko. Berezko Antolamendu eta Jarduera Araudirik ez duten ikastetxeetan edota, halakorik izan arren, departamentu-burua aukeratzeko modua aurreikusi gabe dutenetan, ikastetxeko zuzendariak aukeratuko du departamentuko kideen proposamenez. Departamentuko kideek proposamenik egiten ez badute, ikastetxeko zuzendariak bere kasa erabakiko du.

Izendatua izan ondoren, departamentu-buruak ezingo dio karguari uko egin, departamentu-burutza guztiek titular bat izan dezaten ikasturte hasierarako.

Ikastetxeko zuzendariak izendapena Eskolako Jardueren Agirian eta Klaustroaren aktetan jasoko du, dagozkion ondorio administratiboak izan ditzan, eta gainera, departamentu bakoitzeko buruaren izena igorriko dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Lurralde Ordezkaritzako Nominen Unitateari, dagokion osagaia ordaintzeari ekiteko.



Ikastetxeko ordutegian gutxienez asteko ordu bat utzi beharko da, departamentuko kide guztiak bildu ahal izateko, eta ordu hori irakasle bakoitzaren ordutegian agertuko da. Ikasketa-buruak baldintza hori kontuan hartu beharko du ordutegiak diseinatzean. Departamentuko kide guztiek nahitaez joan beharko dute bilera horietara.

Ekainean, departamentuko kideek bilera egin beharko dute, lan-plana eta haren lorpenak aztertzeke eta hurrengo ikasturtera begira egin beharreko zuzenketak zehazteko. Dagokion informazio-txostena Urteko Memorian txertatu behar da.

Sail didaktikoei zeregin hauek dagozkie:

- a) Arloen programazioa prestatzea, bereziki curriculum eta horren gradu eta moduluko banaketa zehaztuz, bai eta ebaluazio-irizpideak erabakiz ere.
- b) Ebaluazio-probak prestatzea eta kalifikazioei buruzko errekamazioei erantzutea.
- c) Beren espezialitateekin zerikusia duten prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak eta bitartekoak prestatzekoak proposatzea.

Departamentuaren funtzionamendua departamentu-buruaren ardura da. Zeregin hauek ditu departamentu-buruak:

- a) Oro har, organoaren jardura zuzentzea eta koordinatzea.
- b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta bileren buru izatea.
- c) Departamentuko buruak zainduko du programazioa betetzen dela, bai edukietan, bai eskakizun-mailan.
- d) Departamentuak prestatutako ebaluazio-proben kalifikazioak gainbegiratzea, hala urtarrilean nola ekainean.
- e) Lana departamentuko kideen artean banatzea.
- f) Ikasketa-buruarekin harremanetan egotea, departamentuko jarduerak ikastetxeko beste jardura batzuekin koordinatzeko, eta aurreikusitako lan-planaren garapenari buruz edo departamentuan ikusten duen bestelako edozein gorabeherari buruz informatzeko.
- g) Egiten diren bileretako aktak izan badirela bermatzea.
- h) Eskolak berak Antolakuntza eta Jardura Araudian zehazten dituenak.

Departamentu-buruak urriaren 15a baino lehenago eman behar dizkio programazioak ikastetxearen zuzendariari, eta ikastetxean bertan geldituko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura. Programazio horiek ikastetxearen Ikasketa-Proiektuan sartuko dira. Gainera, kopia bat eman behar zaie departamentuko kide guztiei.

Departamentu bakoitzak akta-liburua izango du, eta bai ikastetxeko bai Ikuskaritzako pertsona bakarreko eta kide anitzeko organoen eskura egongo da; akta-liburu horietan, egindako bileren eta hartutako erabakien berri jasoko da.

Akta bat egin behar da departamentuak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar dituzte aktak, eta departamentu-buruak izendatutako irakasleak idatzi behar ditu.

Amaierako ebaluazioaren ondoren, ikasturte hasierako programazioa aztertu behar da, eta zenbateraino bete den ikusi, arrazoiak aztertuta.



5.1.6.- Orientatzailearen funtzioak

Hezkuntza-jarduera osoaren zati bat da orientazioa eta, zentzu horretan, irakasleei dagokie, irakasle-lanaren zati baita. Hori gorabehera, Hezkuntza Orientazioko espezialitateko irakasleek (orientatzaileek) eginkizun bereziak dituzte.

Helduen Hezkuntzako orientatzailearen kasuan, etengabeko ikaskuntzan, helburu batekin zehazten ditu funtzioak: ikasleek bizitza osoan zehar behar diren oinarriko gaitasunak garatzea, kultura arteko hiritartasun aktiboa izatea eta gizarteratzea, aukera-berdintasuna sustatuz, batez ere gizartean, lanean edo hezkuntzan baztertuta geratzeko arriskua duten taldeei dagokienez.

Besteak beste, hauek dira orientatzaileen eginkizunak:

- a) Orientazio Plana prestatzea eta, zuzendaritza-taldearekin batera, tutoreei laguntza eta aholkuak ematea tutoretza-plana prestatzen, eta horren berri jasotzea Urteko Planean eta Departamenduko Urteko Memorian.
- b) Irakasleei aholkatzea eta laguntzea hala ikasleen hasierako ebaluazioan nola ebaluazioaren ondorioz sortutako prestakuntza-ibilbide zehatzak prestatzen. Prestakuntza-eskaintzei eta egin daitezkeen prestakuntza-ibilbideei buruzko informazioa eta aholkuak emanez.
- c) Irakasleei aholkua ematea eta horiek koordinatzea tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez, taldean zein banaka. Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearekin (batez ere, ikasketa-buruarekin) elkarlanean jardutea eta jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztea departamentu didaktikoak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- d) Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikoko Batzordearekin lankidetzan aritzea bereziki Ikasketaburutzarekin, eta, horretarako, proposamenak eta jarduera-planak aurkeztu behar ditu, sail didaktikoak eta irakasle-taldeak koordinatzeko.
- e) Irakasle-taldeekin bilerak egitea aldi behin, ezagutza-arlotako ikaskuntza-prozesuak aztertzeko eta haiek hobe daitezen esku hartzeko.
- f) Ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak aztertzea taldearen tutorearekin eta irakasle-taldeekin, eta aholku ematea hezkuntza indartzeko neurriei eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapen egokienei buruz.
- g) Ikastetxeko ikasleen orientazio pertsonalaz, akademikoaz eta lanbide-arlokoaz arduratzea, arreta pertsonalizatua emanez.
- h) Bizikidetzeta-plana prestatzen laguntzea.
- i) Egokia bada, bere espezialitatearekin lotutako ikasgaiak ematea.
- j) Aldian-aldian maila bakoitzeko irakasleekin bilerak egitea, aholkuak emateko tutoretza-plana garatu eta ebaluatzeko eta batez ere ikasleak orientatzeko zuzendutako jarduerak egiteko.
- k) Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia egin dadin, ikasleak integratu daitezen eta ikasketetan horien arrakasta berma dadin.

Gratu guztietan, ikasketa-buruak orientatzailearen lana erraztuko du, hala ikastetxeko tutorekiko nola ikasleak orientatzeko prozesuetan zerikusirik duten profesional guztiekiko zereginei dagokienez.



Hezkuntza Orientazioko irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren antzekoa. Alegia, astean 30 ordu egin behar dituzte, eta horietatik, 23 ikastetxean egon behar dira; beste zazpiak, berriz, hilabetez hilabete zenbatuko dira, eta ez dute ikastetxean eman beharrik.

30 orduen banaketa Ebazpen honetako 3.1.3. apartatuan zehazten da. Ikastetxeko gainerako irakasleen banaketa bera da, baina salbuespen batekin: ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jardueretara bideratutako orduak zenbatuko dira. Orientatzaileak bere lana bi ikastetxetan egiten duenean, bere ordutegia bien artean banatuko da, ikastetxe bakoitzean irakaskuntza arautuan matrikulatutako ikasle-kopuruaren kontuan hartuta.

5.1.7.- Tutoretzak

Helduen Hezkuntzako talde bakoitzak talde-tutore bat izango du lauhileko bakoitzean. Irakasleen batzarrari entzun ondoren, ikasketa-buruak erabakiko du zein izango diren tutoreak; betiere taldean ordu gehien ematen duen irakaslea tutore izatea hartuko da irizpide nagusitzat. Ikasketa-buruak esleipen guztiak arrazoitu beharko ditu eta klaustroaren agirian argi eta garbi adieraziko du zein tutoretza egokitu zaion irakasle bakoitzari.

Ikastetxeek orientazio- eta tutore-lanerako plan bat garatuko dute. Izan ere, orientazioko eta tutoretzako edukiak, metodologia, jarduerak eta baliabideak modu koherentean eta irakasle-talde osoak koordinaturik programatu, garatu eta ebaluatu beharko dira planak dituen hiru alderdietan: akademikoan, laboralean eta pertsonalean. Plan horrek, besteak beste, ondoko puntu hauek izan beharko ditu kontuan:

- Orientazioa irakasle-talde osoari dagokion lana da. Tutoretza lan horren zati bat da, baina ez da dena.
- Ikastetxeak denbora-tarteak eta lekuak gorde behar ditu banakako eta taldeko tutoretza eraginkortasunez egiteko, baita lan hori koordinatzeko eta programatzeko ere.
- Programazio horrek prozesu orientatzailearen funtsezko hiru une izan behar ditu kontuan: helduaren historiari abiatu; ikastetxean egiten duen prozesua orientatu, baita proiektzioa ere; eta, horren ondoren, jarraipena egin.
- Helduen Hezkuntzan, berdinen arteko orientazioa hartu behar da kontuan.
- Orientazioa eta tutoretza bi lekutan garatzen dira: bata banan-banan, eta bestea taldeka.
- Orientazioko jarduerak moduluetan sartzea ikastetxeko irakasle-taldeen eginkizuna da.

Tutore den irakasleak, zenbait unetan, tutoretza-laneko edukiak eta eginkizunak sartu ahal izango ditu bere tutoretzapeko ikastaldeari ematen dion irakaskuntza-dedikazioaren barruan. Horrelakorik egiten bada, gehien bat taldeari laguntzeko izan beharko da, eta salbuespenez, banan-banan laguntzeko.

Nolanahi ere, irakasle tutoreak 2/2006 Lege Organikoaren 91. artikuluan jasota dauden funtzioak beteko ditu.

5.2.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

2024-2025 ikasturtean, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasle guztiak asteko ordubete izango dute irakasleen prestakuntzarako proiektuak garatzeko, proiektuak eskatu eta onartu badira.



Zuzendaritza-taldeak antolatu behar du prestakuntza-ekintzetarako asteko ordua, aurreikusitako helburuak betetzeko onartutako egitasmo horren arabera. Jarduera hori betetzen dela kontrolatu egin beharko da, irakasle bakoitzaren orduen barruan dauden beste guztiak bezala.

IKTen erabilera sustatzeko, kudeaketa hobetzeko eta ikasleen gaitasun digitala garatzeko, ikastetxearen zuzendariak arlo horretako arduradun bat edo gehiago izendatuko ditu, ikastetxeko irakasleen gaitasunen eta eskuragarri dituzten orduen arabera. Zuzendariak ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko ahalko dio eginkizun hori bete behar duen irakasleari.

Arduradun horiek, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta, eginkizun hauek izango dituzte:

Ikastetxeetako sistema informatikoen eta multimedia-sistemen eremuan

- Ikastetxeko instalazio eta ekipamendu informatiko eta multimedialak ikuskatzea eta behar bezala dabilzala kontrolatzea.
- Harremanetarako pertsona izatea mantentze-lanetako enpresa, ekipamendu-hornitzaile eta komunikazio-enpresekiko, bai eta sailaren Informazio Sistemen Zerbitzuarekiko ere. Alderdi teknikoan, azken horrek esandakoaren mende jardungo du.

IKTen dinamizatzaileraren eremuan:

- IKTen erabilera pedagogikoa sustatzea ikastetxean, eta hezkuntza-komunitate guztiak horien bidez parte hartzea.
- Baliabide informatikoen eta ikus-entzunezkoen erabilera didaktikoa egiteko urteko lan-programa proposatzea ikastetxeko zuzendariari, ikastetxearen urteko planean jasotzeko.
- Gradu eta esparruen talde-bileretan parte hartzea, bitarteko informatikoen erabilera koordinatzeko eta IKT programa garatzeko programazioak ezartzeko.
- Irakasleek IKTak erabil ditzaten eta curriculumean sar ditzaten sustatzea. Aholku ematea irakasleei ekipoetan instalatutako hezkuntza-programei buruz, eta jarduera eta maila bakoitzerako egokiena zein den azaltzea.
- IKTen hezkuntza-erabilerako jardunbide egokiak eta arrakasta izan duten esperientziak zabaltzea ikastetxeko irakasleen artean, eta horiei laguntzea IKTak irakasgai eta maila desberdinetan erabiltzen eta horietara egokitzen.
- Ikastetxeak dituen baliabide teknologiko finkoen eta mugikorren ordutegiak eta horiek erabiltzeko moduak proposatzea, bai eta erabilera-arauak ezartzeko proposamenak egitea ere, bitarteko informatikoak eta multimedia-sistemak dauden guneetarako.
- Ikastetxeak hala erabakitzen badu, Irakaskuntzako Gaitasun Digitaleko B1 eta/edo B2 egiaztapen-ikastaroak dinamizatzea.



6.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA ADMINISTRAZIOA

6.1. BESTE GIZATALDE BATZUEKIKO KOORDINAZIOA

Beharrezkoa da Helduen Hezkuntzako ikastetxeen arteko koordinazioa, UHEI barne. Horrez gain, beste gizatalde batzuekiko koordinazioa ere sustatu behar da.

a).- Boluntarioak

Abiaturuko premisak dio gure ikasleen ikasketak hobetzeko funtsezkoak direla bai interakzio-kopurua, bai horien kalitatea berdintasunezko plano elkarrizketan. Aipatutako interakzio horien kopurua handitzeko modurik egokiena da dauden irakaskuntzetara boluntarioak erakartzea (familiako kideak, ikasle ohiak, auzokideak, auzuneko elkarrekinak, ikasleak, auzuneri eta komunitateari lotutako beste langile batzuk...). Horretarako funtsezkoa da ikastetxe bakoitzak bere boluntarioekin koordinazio-guneak antolatzea eta kide horiekin idatzizko adostasunetara heltzea, 17/1998ko Legeak, ekainaren 25ekoak, Boluntarioei buruzkoak, ezartzen dituen oinarri juridikoen arabera.

b).- Etorkinekin eta gutxiengo etnikoekin lotutako beste talde batzuekin lankidetzan aritzen diren elkarte eta eragileak

Etorkin atzerritarren presentzia hazkorra errealitate saihestezina da eta, gainera, ikastetxearen inguruneri kultura-aniztasun nabarmena ematen dio. Helduen ikastetxearen eta elkarte horien arteko koordinazioa ezinbestekoa da kideak ongi gizarteratu daitezen.

c).- Inguruko kultura-elkarteak

Ikastetxearen testuinguruko kultura-elkarteekin lankidetzan aritzea ere garrantzitsua da, bertan antolatzen diren prestakuntza-ekintzetako partaidetza bultzatzeko.

d).- Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak

Beharrezkoa da Helduen Hezkuntzako ikastetxearen ingurunean dauden gainerako heziketa-zerbitzuekin harremanetan egotea eta horietako bakoitzarekin koordinazio-guneak bilatzea, batik bat informazio trukerako, hezkuntza-ingurune baliabideak aprobetxatzeko eta ikastetxe bakoitzaren interesen arabera harremanak ezartzeko. Bestalde, Helduen Hezkuntzako ikastetxeek gainerako ikastetxeetako ikasleen emaitza akademikoen hobekuntzan eragin dezakete, oinarrizkoa den «familien prestakuntzaren» bidez.

e).- Gizarte-zerbitzuak eta Lanbide

Gizarte-zerbitzuak biztanleria osoarentzako zerbitzu publikoak dira; pertsona guztiei gizarte-zerbitzuen sistemaren prestazioak eta laguntzak eskuratzeko aukera ematen diete. Prestazio horien truke Helduen Hezkuntzako Ikastetxeen prestakuntza-planean parte hartzeko eskatzen zaienean, ezinbestekoa da ikastetxea eta laguntza-zerbitzuen arteko koordinazioa.

f).- Unibertsitatea

Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak toki egokia izan daitezke Unibertsitateko Irakasle Eskolako eta Gizarte Hezkuntzako ikasleek praktikak egin ditzaten. Horregatik, hain zuzen ere, komeni da



erakunde horiekin harremanetan jartzea. Horrez gain, harreman horiek beste eremu batzuetara ere zabal daitezke, hala nola, ikerketara.

Aipatutako koordinazio- eta lankidetzeta-bide horiek guztiak ireki eta ematen direnean, ikastetxeko dokumentu garrantzitsuetan agertu behar dira; hauetan, adibidez: IHPan, AJAn,...

6.2.- IKASTETXEETAKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN EKINTZETARAKO

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako Administrazioak eta ente publikoek edota edozein pertsona fisiko zein juridikok erabiltzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horren artikuluek zehazten dituzte, besteak beste, jardueren ezaugarriak, instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskaerak egiteko eta baimenak emateko prozedura ohikoa eta laburtua.

Alde horretatik, ikastetxeetako eraikin eta instalazioak hezkuntza-komunitateko kide guztiei zabaltzea da eragile guztiak integratzeko eta hartzeko modu bat, komunitatean modu aktiboan parte hartzen laguntzeko eta komunitatea indartzeko jardunbide bat. Hala ere, gogoratu behar da ikastetxeek dekretu horretan ezartzen den araudia bete behar dutela.

Hezkuntza-komunitateko hainbat agentek eskola-bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak bereziki ikasleen osasun eta segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi nahitaez arautzeko eskatzen du, eta ikastetxean biltzen den kolektibo osoarena ere bai.

6.3.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

6.3.1.- Osasun-larrialdiak ikastetxeetan

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

6.3.2.- Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua

Ikastetxeko zuzendaritzak baimendu beharko ditu ikastetxe batera sartzen diren ibilgailu guztiak.

Sartzeko baimena izanda ere, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinaleztatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

Aparteko egoera batean ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendaritzak edo eskuordetzen duen pertsonak lagundu beharko diote ibilgailuari.



6.3.3.- Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

Obrak egiteko, segurtasun- eta osasun-azterketa bat sartuko da proiektuan, jarraibideak zehazteko. Obra txikiak direnean, jarraitu beharreko segurtasun-plan bat erantsiko zaio lantokiaren irekierari.

1.- Edozein kasutan ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat bereizi beharko dira. Horrek eskatzen du:

- a) Obragunea erabat hesitzea.
- b) Sarbide independenteak obrako ibilgailuentzat eta obrako langileentzat.
- c) Obrakoa ez den pertsona orori sartzea galarazteko kartela.
- d) Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzea galarazteko kartela.

2.- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obragunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneez argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ere ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jarriko da.

3.- Obretako ibilgailuak eskolagune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko du pertsonala, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

6.3.4.- Tabakoa eta alkoholun edariak

Ikastetxeko zuzendariak zainduko du indarrean dagoen araudia betetzen dela, kontuan izanda araudi horrek debekatu egiten duela ikastetxeetan tabakoa eta edari alkoholunak saltzea, banatzea eta kontsumitzea, ikasleen adina eta irakaskuntza mota edozein izanda ere, eta, halaber, ekipamenduetan eta instalazioetan egin beharreko mantentze-lanez arduratuko da.

6.3.5.- Eskolako laborategien erabilera

Laborategietako jarduna ikasleen adinaren eta gaitasun-mailaren arabera izan behar da, baita instalazioen baldintza teknikoaren arabera ere. Pertsonen segurtasuna eta indarrean dauden protokoloek agintzen dutena betetzen dela bermatu behar da.

6.4.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIO-ARRAZOEN ZERBITZUA

Gogorarazten dizuegu lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio gehiago hurrengo helbide honetan duzuela: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-lapz/> Prebentzio Zerbitzua atalean edo bestela Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsulta eginez.

ZERBITZU OROKORRAK	<i>LAPZ Arduraduna</i>	<i>945 018 411</i>
	<i>Higiene arloa</i>	<i>945 018 451</i>
	<i>Psikosoziologia arloa</i>	<i>945 016 546</i>
	<i>Segurtasuna arloa</i>	<i>945 016 545</i>



LURRALDE HISTORIKOA	ZONA	ARLO TEKNIKOA	LAN OSASUNAREN ARLOA
ARABA	1. ZONA	945 01 84 51	688670550
BIZKAIA	1. ZONA	94 403 11 92	94 4031194
	2. ZONA	94 403 11 93	
	3. ZONA	94 403 11 93	
	4. ZONA	94 403 11 92	
GIPUZKOA	1. ZONA	943 02 31 74	943 023170
	2. ZONA	943 20 84 44 181 luz.	943 700491

6.4.1.- Segurtasun-laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio-zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean 8etatik 11etara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen zeregina ikastetxean nolabaiteko egonkortasuna duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

6.4.2.- Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan

Langileak prebentzio-gaietan trebatzeko betebeharra (31/1995 Legea, Hezkuntza Sailarenak, 19. artikuluan xedatzen duena) betetzeko eta langileek 31/1995 Legeko 29. artikulua betetzeko, irakasleak prestatzeko edo/eta ikastetxeari emateko orduetako 2 erabili behar dira gutxienez urtean. Prebentzio-zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du prestakuntza, behar den aurrerapenarekin zehaztutako egun eta orduetan.

6.4.3.- Larrialdietako simulazioak

Urtean behin nahitaez egin beharrekoa denez, **PAC** sartu behar da.

Ikastetxe guztietan egingo da, gutxienez urtean behin, eta, ahal izanez gero, ikasturtearen hasieran.

Simulakroaren ebaluazioa bidaltzeko bide bakarra dago: **Segurtasuna-Larrialdiak** atalean prestatutako web-formularioa erabili behar da.

6.4.4.- Botikin eramangarria

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duenaren arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituenak: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta, iraungi edota erabili bezain laster, berria jarriko da.



Eskatu eta birjartzeko:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_sprl_botiquines/eu_def/adjuntos/Bo_tiquines_may_19_e.pdf

6.4.5.- Laneko istripuak

Osasun zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Saileko webguneko Segurtasuna. Lan istripuak atalean adierazitako eskemaren arabera egingo dira.

<http://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>

Zuzendaritza taldeak bajadun zein bajarik gabeko istripu guztiak erregistratuko ditu.

Ikastetxeko langileek jasandako erasoak lan istripuzat jotzen dira, nahita edo nahigabe egin direnak eta erregistroan sartuko dira.

Amatasuna babesteko prozedura barruan erregistro hau zein ikastetxean gertatutako gorabeherak jasotzen dituen eska daiteke.

6.4.6.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Informazioa entregatzeko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen arriskuei buruzko ebaluazioa eta larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langileei.

6.5.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUAREN TRAMITAZIOA ETA ORDAINKETA.

DBHko 3. mailatik unibertsitateko hirugarren ziklora bitarteko 28 urtetik beherako ikasle guztiak Gizarte Segurantzaren Eskola Aseguruan sartuta egon behar dute. 2018-2019 ikasturtetik, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek aseguru horren tramitazioa eta ordainketa egin behar dute, jarraian adierazten den moduan:

1.- Matrikula amaitutakoan, urriaren 31 baino lehen, ikastetxeak Hezkuntza Sailera igorriko du, aldez aurretik jakinaraziko zaion helbide elektronikora idatzita, EXCEL fitxategi bat, informazio hau bilduz: ikastetxearen izena, 8 zifrako kodea, KKK (kotizazio-kontuko kodea) eta egun horretara arte ikastetxean matrikulatu diren eta eskola-aseguruan sartu behar diren ikasle guztien datuak. Ikasle bakoitzari buruzko datu hauek eman beharko dira fitxategian:

- Ikaslearen identifikazio-dokumentu mota (NAN, AIT, etab.)
- Ikaslearen identifikazio-dokumentuaren zenbakia (letra barne, halakorik dutenen kasuan)
- Izena
- Lehen abizena
- Bigarren abizena (halakorik dutenen kasuan)

Ikastetxeei artxibo-eredu bat emango zaie, ikastetxeek datuak bete ditzaten.

2.- Hezkuntza Sailak elektronikoki sartuko ditu datu horiek guztiak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informatika-aplikazioan, eta eskola-aseguruen kuoten likidazio-agiria



jasoko du (ordainketa-gutuna). Ikastetxe bakoitzari posta elektronikoz igorriko dio dokumentu hori. Ikastetxeak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du edozein finantza-erakundetan, ordainketa-gutuna jaso eta bost eguneko epean, gehienez ere.

3.- Hori egin ostean ikasle gehiago matrikulatzen badira eta ikasle horiek eskola-aseguruan sartu behar badira, ikastetxeak azaldutako prozedura berriz egin beharko du, behar adina aldiz. Matrikulatutako ikasle berrien datuak dituzten EXCEL fitxategiak hileko azken egunean egingo dira, azaroaren 30etik ekainaren 30era bitartean, hilabete horretan matrikulazio berririk izan bada. Kasu horietan, aurreko bi ataletan deskribatutako prozedura errepikatuko da.

6.6.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Ikastetxeek euren ikasleen datu pertsonalak kudeatu beharko dituzte, bi arau hauetan ezarritakoaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan zehar sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta Sailaren aplikazio informatikoen bitartez bilduko da. Gainera, ikastetxeek derrigorrez eman behar diote datu pertsonalen tratamenduaren oinarriko printzipioei eta arriskuei buruzko prestakuntza hezkuntza-komunitate osoari. Titularrei hizkera ulergarrian eman behar diete datuak babesteko politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak etengabe eguneratu behar ditu datuak, barne-prozesuek behar bezala funtziona dezaten. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu, datuak aldatu behar badira jakinaraz dezaten eta, hala, eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeak bere zereginak betetzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikaslearenak, haren senideenak, ikastetxeko langileenak edo ikaslearekin harremana duten beste pertsona fisiko batzuenak. Haiak dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. Ikastetxeko langileek pribatutasuna eta intimitatea errespetatuta eta arduraz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, eta ikasleen interesa eta babesaren lehenetsi behar dituzte.

Erabiltzaileek eskubidea dute datuetara sartzeko eta horiek zuzendu, ezabatu eta eramateko, bai eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki zaindu beharrekoa da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Ikasleen osasunari buruzko datuak dira, esate baterako, hezkuntza-premia bereziei buruzkoak (adibidez, desgaitasunen bat), alergia edo intolerantzien ingurukoak bai eta ikasleen txosten psikopedagogikoetan jasotako datuak ere, besteak beste.

Beharrezkoa izan daiteke ikastetxeek eta, bereziki, bertako langileek euren ikasleek gaixotasunen bat edo alergiaren bat daukaten jakitea. Eta, horretarako, informazio hau ahalik eta berme handienekin tratatzeko neurriak hartu behar dira.

Horregatik, eta ikasleekin edo, kasua bada, euren legezko tutoreekin adostuta, informazio hori behar bezala tratatzeko behar diren protokoloak ezarriko dira, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgelan, aisialdi-ordutegian, gorputz-hezkuntzan, jangelan, erizaindegian, ebaluazio psikopedagogikoa egitean, eta abar) bai ezohiko egoeretan (irakasleen eta tutoreen ordezkapenak, urteurrenen ospakizunak, irteerak, udalekuak, eta abar).



6.7.- JABETZA INTELEKTUALA IKASTETXEETAN

Obra zati txikien eta izaera plastiko eta fotografiko figuratiboko obra bakanen erreprodukzioa, banaketa eta jakinarazpen publikoa apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo dira. Legegintzako Errege Dekretu horrek Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen du eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak arautu, argitu eta bateratzen ditu ([ikus, batez ere 32. artikulua](#)).

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA



I. ERANSKINA

BESTE HHI BATERA LEKUALDATZE ESKAERA / SOLICITUD DE TRASLADO A OTRO CEPA

IKASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO/A:

IZENA / NOMBRE:	ABIZENAK / APELLIDOS:
HNA / DIE:	IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA /Nº IDENTIFICACION:

GAUR EGUN MATRIKULATUTA / ACTUALMENTE MATRICULADO/A EN:

IKASTETXEA / CENTRO:
MAILA / NIVEL (Zehaztu gradu, modulu eta esparruak / especificar grado, módulo y ámbitos):

LEKUALDATZE ESKAERA EGITEN DUT / SOLICITO EL TRASLADO A:

IKASTETXEA / CENTRO:
INGURUA / CÍRCULO:
TXANDA / TURNO:

ARRAZOIA / MOTIVO:

--



Jatorrizko ikastetxeari eta lekualdatzea eskatu dudanari nire asmoen berri eman diet. /
He informado tanto al centro de origen como al centro al que solicito el traslado.

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA:



II. ERANSKINA

Matrikularen UKO EGITE ESKAERA / SOLICITUD DE RENUNCIA DE MATRÍCULA

IKASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO/A:

IZENA / NOMBRE:	ABIZENAK / APELLIDOS:
HNA / DIE:	IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA /Nº IDENTIFICACION:

GAUR EGUN MATRIKULATUTA / ACTUALMENTE MATRICULADO/A EN:

IKASTETXEA / CENTRO: MAILA / NIVEL (Zehaztu gradu, modulu eta esparruak / especificar grado, módulo y ámbitos):
--

UKO EGITEKO ESKAERA EGITEN DUT / SOLICITO LA RENUNCIA DE:

ESPARRU GUZTIAK / TODOS LOS ÁMBITOS: <input type="checkbox"/>
ESPARRUREN BAT (zehaztu esparrua/k) / ALGUNO DE LOS ÁMBITOS (especificar): <hr/> <hr/> <hr/>

ARRAZOIA / MOTIVO:

<input type="checkbox"/> Ikaslearen gaixotasun luzea edo istripua, bi hilabete baino gehiagoko absentzia eragiten duena. / Enfermedad prolongada o accidente del alumno o de la alumna que se traduzca en una ausencia de más de dos meses .
<input type="checkbox"/> Lanpostu bat betetzen hasia baliogabetzea eskatzen duen eremuak esleituta duen ordutegiarekin bateraezina den ordutegi batean. / Iniciar una relación laboral en un



puesto de trabajo en un **horario incompatible** con el que tiene asignado el ámbito para el que solicita la anulación.

Ikasketan normaltasunez aritzea eragozten duten **betebehar pertsonal edo familiar justifikatuak**. / **Obligaciones de tipo personal o familiar justificadas** que impidan la normal dedicación al estudio.

AURKEZTUTAKO AGIRIA / JUSTIFICANTE APORTADO:

Medikuaren egiaztagiria, gaixotasun edo istripuaren luzapena zehazten duena. / Justificante médico indicando la duración aproximada de la enfermedad.

Lan kontratua edo lanpostuari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. / Contrato de trabajo o declaración responsable el puesto de trabajo.

Betebehar pertsonal edo familiarrei buruzko erantzukizunpeko adierazpena. / Declaración responsable sobre obligaciones de tipo personal o familiar.

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA: